


# anaitasuna

1976 eko Ekainaren 15ekoa  
319 zenbakia 25 Pta



**micHELIN:**  
GREBAREN  
100  
EGUNAK

1991

# EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

*José de Ezpeleta, S. A.*

EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

JOSE DE EZPELETA, S.A.  
ATEAK - PANELAK - HOLTZAK

**BILBON**  
Oficina central  
Príncipe, 5  
Tlf: 4230930

**ETXEBARRIN**  
Carretera Bilbao - San Sebastián Km. 4'5  
Edificio Saga  
Tlfs: 4493143 - 4495058

**BALMASEDAN**  
Correría, 47  
Tlf: 6800604

**ZARAUTZEN**  
Polígono Industrial, s/n  
Tlfs: 841013 - 841906

**GASTEIZEN**  
Urartea, 12  
Polígono Industrial Aligobeo.  
Tlfs: 243850 - 54

**BILBOKO ERAKUSKETA**  
Buenos Aires, 1 - bajo.  
(Sotano Aviaco)  
Tlf: 4219811

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi  
ondoko txartela eta bidal helbide honlara:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

**Izen-deiturak** .....

**Bizilekua** .....

**Herria** .....

**Probintzia** ..... **Tel** .....

**anaitasuna**

Bizkaia  
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

**Urteko abonamendua:**

Bertorako ..... 500 pezeta  
Latin Amerikarako ..... 550 pezeta  
Europa eta Ipar Amerikarako ..... 700 pezeta

**Ale bakoitza:** 25 pezeta.

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º, Bilbao-5  
Posta kaxa 495. tel. 4237449

- 3 EDITORIALA  
 4 TANTAKA  
 6-16 MICHELINGO langileak.  
 17. Ekerra aka euskal sozialismoa  
 18. Preso politikoak  
 20. Erregeari gutuna  
 21. "Vascongalismo"aren dialektika.  
 22. A.T.S.en arazoa  
 Denda langileen burruka  
 23. Euskarari buruzko agerria.  
 25. Ingenariak eta euskara  
 26. Lejoa: Errektorea kanpora.  
 27. Eskola pribatuetan euskarak jai  
 28. Udako Ikastaldiak Arrasaten.  
 29. "ETXE SARTZEA"  
 30. Nora eraman nahi gaituzte?  
 31. Bi sozialismo guttienez.  
 32. EUSKAL UDALEKUEI BURUZ.  
 34. Zapaburu birbiztua.  
 Maketapena: Fernando Marrazkiak: Fernando eta Olariaga.  
 Moldiztegia: Elexpuru Hnos San Martin, 153 ZAMUDIO.

D.L. BI-1753-67



**MICHELIN**

*grebaren 100 egunak*

Otsailaren 16an hasita, hiru hilabete baino gehiago iraun du Lasarteko Michelingo grebak 2.800 langile izan dira grebara jo zutenak, esku-langile denak, produkziokoak. Atera gabe, Michelin bertan 700 bat enplegatu gelditu dira.

Dossier honetarako lerroak idazteko orduan, maiatzaren 21an entpresak kalean utzitako langileak, atzera lanean hasteko eskabidea banan banan egin ondoren, entpresak noiz deituko zain claude batzu, beste batzu lanean jadanik hasiak. 22 dira entpresak kalera bidaliak. Baina, orain, hartu gabe zenbat utziko dituen ez daki inork, zurrumurru beltzak ugari entzun arren. Beldurrik ez da falta langileen artean.

Alde askotatik begiratuta, greba honek ba duela muntarik pentsatu dugu, ba dagoela hemen zer ikusirik eta zer azterturik. Informazioa eta dokumentuak erabiliz, eta langileen ordezkariekin egonaz, azterketa bat egiteari lotu zaizkio Joan Mari Torrealday eta Manolo Pagola, greba honen gorabehera nagusiak eta punturik azpimarkagarrienak ANAITASUNAREN irakurleari eskaintzeko asmoz.

Zenbaki honetan agertzen denaren muina, ba, MICHELINeko arazoaz eman nahi izan dugu. Eman ezinik utzi dugunik ere ba da. Torturak direla eta, prestaturik genuena erretiratu beharrean aurkitu gara gu ere. Torturari buruzko jokabidea ez argitzerik ez salhatzerik dugu. Pena da. Giza eskubideen aldeko burruka honetan ANAITASUNAK eskuhartu nahi izan du. Ez dugu ulertzen nola debeka daitekeen arazo horretaz eguargitan eta denon aurrean mintzatzea.

## HIRU EGUN! IKASTOLETAZ.



HORI BAI elkarteak eskerrak ematen dizkizue ikastoletaz hiru egun posible egin duzuen guztioi.

Erakustean parte hartu duzuen:  
 Algortako: "San Nikolas" Ikastolari  
 Santutxuko: "Karmelo" "  
 Ondarruko: "Zubi zahar" "  
 Leioako: "Altzaga" "  
 Gernikako: "S. Altube" "  
 Basauriko Ikastolari.  
 IKER banatzaileari.

Jaildian parte hartu dezuten:  
 Ondarruko "Zubi zahar" Ikastolari.  
 "Lauro" "

Markinako ikastolako Aretxabaleta neba-arrebari.

Mintzaldietan parte hartu duzuenori:  
 X.Mendiguren, P.Lazpiur, J.M.Torrealdai, J.M. Elexpuru, J.Pagalday eta J.L. Perez.

Anaitasuna aldizkariari bere lege babeza eskeini digulako. IKER banatzaileari, momentu guztietan lagungarri izan dugulako.

Halako ekintza bat egiten denean ondorio batzuk itxaroten ditugu. Hauk etortzen badira zerbaitearako baliagarri izan direla pentsatzen dugu.

Larrabetzun ba dirudi mesedegarri izan direla. Gure apaizak gogorki ari dira euskara batuaren aurka. Ikastolako gurasoen artean, fameli elkartean eta elizan bertan ere bai, igandeetako mezatan.

Bestalde Mungialdean batzar batzuk egin dira ikastola baten lehen oinarriak sendotzeko. Elkarrizketak elizarekin, eta dakigunez prest daude ikastola berri honetan parte hartzeko. Mungialdea eta Txori Herri bat egitea ere pentsatu da. Ez dugu txarto ikusten. Itxura denez Larrabetzu bezelako ekintza bat egitekotan daude.

Ea ba noiz batzen garen denok Mungialdea eta Txori Herri Ikastola berri honi lehen bultzadak emateko.

HORI BAI—Elkartea.

## B.U.P. euskaraz Tolosan.

Jakina den bezala, hainbeste eta hainbeste urtetan irakaskuntzan ihardun duten "Inmaculada"-ko serorak, datorren urtean Tolosatik kanpora doaz.

Haien ikastetxeaz, eratzeko dagoen ikasleen guraso talde bat arduratuko da, eta bertan B.U.P.eko irakaskuntza emango da.

Datorren urtean, B.U.P.eko lehen eta bigarrena emango dira. Lehen urteko talde bat, Ikastoletatik eta gainerako eskoletatik datozen neska-mutil osatuko dute; eta irakaskuntza Ikastolari jarraituz emango da.

Ikastetxe honetako zuzendaria, Psikologian lizentziatua den Jose Iturria frantziskotarra izango da.

Interesatuak lirajtekeen guztiei, eta batez ere, Ikastoletako haurrei, matrikula irekia dagoela agertzeko eskatu digute.

## MUNGIAN SEI MILA UME.

Sei mila ume elkartu ziren Maiazaren 30ean Mungian. Ume hauk "Kili-Kili" alfabetatze kanpainakoak ziren. Mungian igande osoa iragan zuten, goizean Meza entzunez eta dantza taldeek beren saioak eginez. Arratsaldean kirolak izan zituzten, bazkari eder bat egin ondoren. Zorionak lerro hauetatik bai Jose Antonio Retolazari eta bai Mungiako antolatzaileei, Iñaki Etxeberriari batez ere.

## EUSKARARI STOP.

Telegrama bat euskaraz jartzera bazoaz, kontuz! Gabardinan burua sartuz eta kapela sudurreraino jaitsita, erdi ahozka esan itzazu hitzak. Komedia guztia egin zazu zeren eta gero euskarazko textua "código secreto" bezala ordaindu beharko duzu eta.

Bai, Euskal Herrirako baldin bada ez, baina Valenciarako izanez gero halaxe ordainduko duzu. Euskarari. STOP. Goraintziak. STOP.

## BESTE BONBA BAT

Ultraeskuindarrak gero eta libreago dabiltzala esatea egia da. Ondarroan egin dute beren lana oraingoan, espetxeratua dagoen euskaldun baten aurka. Angel Etxanizek duen klub baten aurka bonba bat jarri zuten eskuindarrek joan den Ekainaren 2an.. Etxanizen familiak, Angeli egindako torturak aldizkari bati jakin erazi ziolako dirudi bonba honen iturburua.

## DONOSTIAKO ALKATE JAUNARI TA BESTE ALKATE JAUNEI.

Joan den martxoan, EUSKAL-TZAINDIAREN ofizialtasuna zela eta, Donostiako aiantamenduko kontseilari jaun bat EUSKARAZ mintzatu zen. Gauza bitxi eta harrigarria! Denak xoratuta gelditu ziren, bai, harrituta, gure hirian euskara entzuten zutelako. Madrilako aiantamenduan norbait sanskritoz mintzatu balitz, denak harribelarri geldituko lirateke. Horra, ba, hemen ere, euskara gure euskal aiantamenduetan sanskritoa entzutea bezala da. Baina martxoaz geroztik (eta aurreko 40 urte luzeetan ere ez) ez dugu euskal sanskriticik Donostiako udalietxe agurgarrian entzun. Lasa Jauna, zer egiten dugu? Noiz arte artxibatatu duzu "bitxikeria" hori. Ad kalendas graecas...?

Baldin eta ez badakizue Lasa Etxarri jauna eta zuek Euskal Herriko alkate jaunok, ba dago Madrilen 1975eko urriaren 30ean emandako lege bat. Lege horrek, gorporetan, euskaraz mintzatzeko ahalmena ematen die. Noiz hasi behar duzue, lege hori betetzen? Noiz bete behar dituzue Madrilako lege guztiak zintzoki? Noiz, noiz, noiz? Guk, euskaldun bezala, politika mailan eskatzen dizuegun minimoa, Euskara onhartzea da. Euskara ez dakiten alkateek utz dezatela alkate-tza; bestela, ikas, eta beste hainbeste kontseilariarik... Oстера, betiko kontua dugu: "como no entienden todos", erdaraz bakarrik mintzatu gara. Esan: hemen kulturalki "diskriminatua" zeintzu dira, erdalidunak hala euskaldunak. Non gaudu, Gastelan ala Euskal Herrian? Gure Donostia, Irun, Eibar, Bilbo, Durango, Deba eta beste herrietan zer egiten dugu "euskara-sanskritto" bitxi horrekin?

## BESTE UDALETXE BAT FORU ESKE.

Nahiz eta Gipuzkoako gobernarriak Bergarako Udaletxeak foru eta Estatu Ekonomikoen alde egindako eskakizuna ukatu, beste gipuzkoar udalietxe batek eskakizun berbera egin du: Elgoibako Udaletxeak, "foruen itzulpen osoa" eskatzen du, "administrazio erregimen berezi" batek ekonomi arazoak bakarrik ikusten baitigu, gure nortasunak eta historiak eskatzen dituzten aldaketa sakonak batera utziz.

## ENPARANTZA BERRIAK ZOLU BERRIA.



Bilbo Zaharrean nabaria zen aparkaleku eza. Arazo hau arintzearen, aspaldi hasi ziren Plaza Berria altxatzen, dakikezuenez. Oraingo berria, zera da, aparkalekuaren gainea edo plazaren zolua egin dutela. Ea bada, laster ikustea ditugun kontzertuak bertan. Eta oraingo euskal izen batez bataiatzeko era datorkionez aparkaleku berri horri, Bilbo Zaharreko merkatariorik bi izen dituzte Udaletxean aurkezteko: "Bilbo Zaharreko aparkalekua" edo "Plaza Berriko aparkalekua" Ba dakizue, orain legeak euskal izenez bataiatzera bideratzen gaitu.

## DANTZARIAK HERNANIN.

Joan den hilabeteren 30an Dantzarien II, astea ospatu zen Hernanin. Dantzaaldien agerpena, Galarreta pelota lekuan, bezperan hasi zen. Igande arratsalde, jaialdiari berriro jarraipena eman zitzaion enparantza nagusian. Zazpi probintzietako zazpi taldek parte hartu zuten, Euskadiko folklore aberatsaren adierazgarri bezala.

Ordu batzutan Bidasoako mugak ez zuen indar handirik izan, giroak erakusten zuenez. Izan ere, giroa bete betean zoragarria izan zen, bizi bizia; eta; saioa luze xamarra izanagatik (ez da harritzeko, hainbeste talde izanik), jendea gogoz egon zen, dantzariak begira gozatuz. Dirudienek, jakituzenez diotenez behintzat, gizakumeek, solasean ikasi baino lehen, dantzen bitartez adierazten omen zituzten beren poz, nahigabe eta gorabeherak.

Hau honela bada, gure dantzariak trantsiziozko aro batetan aurkitzen dira euskal hitzari buruz, nire uste apalez behintzat. Dantzan egoki dakitene, baina hizkuntzaz ez dira jabetu. Dena den, zorionak antolatzaile eta laguntzaileei. Jarrai bide horretatik

## JUAN CARLOS ERREGEAREN HITZAK.

Juan Carlos, Espainiako erregea, dakigunez, Ekainaren lehen egunetan Ameriketako herrietatik ibilia da. Bertan, espainolez egiten duen Estatu batetako, Dominikar Errepublikan hain zuzen, ondoko gauzok esan zituen hizkuntzak Herriak lotzeko dauzkan balioei buruz:

"La lengua es la casa común en donde a cada uno de nuestros pueblos corresponde una habitación. La lengua es la morada que todos habitamos. Cuanto hagamos por ella, a ambos lados del mar, la vivifica y la hermosea. Es misión de las distintas generaciones mantenerla actualizada, flexible, rápida, capaz y siempre en forma. No hay una lengua definitivamente hecha. La lengua es nuestra sangre espiritual y establece la frontera exterior de nuestros pueblos en el mundo, pero traza también, en cada uno de nosotros, nuestra frontera personal. Nadie puede conocerse a si mismo sino a través de ese diálogo en que el hombre pregunta y la lengua responde, pues lo propio del hombre es preguntar, lo propio de la lengua es responder. Por ella somos hombres, y por ella también somos quienes somos, pues la frontera personal solo puede fijarse en ese interno y último diálogo del hombre con su lengua.

En la memoria del niño, y en la memoria del hombre las palabras incorporan imágenes, pero también incorporan con ellas las costumbres de un pueblo, sus reacciones vitales ya decantadas por el uso, sus rezos y sus leyes, su modo de gozar y de llorar, su pensamiento y su poesía. Hablar en una lengua determinada e insertarse en la corriente de un río que nos conduce y fertiliza. No estamos solos en el mundo. No hemos nacido ayer porque hablamos en una lengua que nos transmite la solidaridad de los vivos y de los muertos, la solidaridad de cuantos la hablaron desde hace muchos siglos hasta hoy. En última instancia es un repertorio de

actitudes vitales que facilita nuestras acciones y representa el patrimonio común de sus hablantes. Empecé este viaje para escuchar, con alegría, nuestra lengua en América."

Guk geuk, espainolen erregeak esandako guztia erabat onhartzten dugu eta berak aipaturiko balio horik —berberak oso ongi aldarrikatu duenez— unibertsalak diren aldetik, zera eskatzera ausartuko ginatke, hots, hori guztiori, "Mutatis Mutandi", hau da, euskarari aplikatuz, lehenbailehen betetzeko. Kontsekuente izateak horrenbeste eskatzen baitu.

## EUSKAL UNIBERTSITATEA ERDARAZ OTE?.

Lehenengo egunean, Donostiatik nenbilela, ormetan EUSKAL UNIBERTSITATEA (sic) izena zeramaten kartel batzutan, erdarazko hitzaldi batzuren berri ematen zen, orain arte euskal arloan deus guti egin duten zenbait pertsonaiaren ardurapean, hain zuzen ere.

Egia da Euskal Unibertsitatea, Herri osoaren kolektibo bat den aldetik, ezin dezakeela ezen taldek monopoliza —zenbaitzuk arlo horretan urte batzutako ekintzatasun bat ukan arren— baina ez da gezurra, bestetik, aspaldi honetako oportunistak batzuk izen hori beren erdal aurpegia estaltzeko darabiltenik. Eta EUSKAL hitzaren zentzua dakienez edozeinek ba daki, halaber, hitz horrek bere kontrasta duela: ERDAL. Erdarazko Euskal Unibertsitaterik ez, beraz. UNIVERSIDAD VASCA edo VASCONGADA esan behar duzue, jaunak, eta mozorroa ken.

## KATEA HONEK LOTZEN NAU


Aurtengo 24 orduak euskaraz, ba dirudi, entzuleentzat bakarrik eginak izan direla.

Orain dela egun batzuek —milioika belarriak lekuko— "Hora 25" delakoan J.A. Rodrigoren ahoz euskal egunkari berri baten berri eman zen. "Berriak" izenekoa, hain zuzen. Beste egunetan "Gabon lagunok" batekin hasten zen zintzurra lehor xamarra gelditu zen "Berriak" hitzaren esannahia Madriletik galdetu ziotenean. (Katea SER o NO SER). Erantzuna (handik segundu batzutarra) hauxe izan zen "Creo que andamos un poco tarde de pensamiento euskérico"

Horixe bai kaka egiten eta papeirik gabe.

# MICHELINGO langileak

grebaren  
gurpilean





# MICHELIN munstro bat da

Ikaragarria handia da Michelin. Gurpilgintzan, munduko hirugarrena da, Firestone eta Pirelliren ondoren. Entrepresa multinazionala denez, han eta hemen barreiaturik, 140.000 langile ditu. Buru bat eta beso askotako munstro bat dirudi Michelinek. Buru hori, Frantziako Clermont-Ferranden dago. Hortik aparte, Frantzia bertan ba ditu zenbait lantegi, eta gero Ingalaterran, Ipar Irlandan, Holandan, Belgikan, Alemanian, Italian, Espainian, Ipar Amerikan...

Espainiako Estatupean lau lantegi ditu. Lasartekoa da zaharrena, 3.400 langilekin. Gazteiz dator gero (4.000) Dueroako Aranda (1800), Valladolid (1.500). Madrilen ere ba du Merkatalgorako Etxe bat, eta Almerian Ikerketa-Zentru bat. Baina, lantegiok ez dute pisu bera. Izan ere, Penintsulako lantegi guztietan garrantzikoena Lasartekoa da, Peninsula mailako Zuzendaritza hemen baitago. Horregatixek dago hemen aginte lekuetan hainbeste frantses. Aginte nagusia Clermont-Ferranden duen empresa honek, Lasarten, lantegi buru eta erabaki ahalduak, frantsesak ditu denak.

## ENTREPRESA GOGORRA.

Izen txarra du Michelinek sindikatuen artean. Gogorra, omen da, heretsia, egoskorra, amorekaitza. Publizitateko gurpilezko gizon pottolo eta begikoarekin ez dute nagusiok zerikusirik handirik. Errendatze osoa eskatu ohi dute. Langilea kaleratzera jotzen dute berehalakoan, istiluaren soluziobideztat.

Ez dira elkarriketa zaleak Michelingo nagusiak. Oraingo greba honen lehen partean, langileek egindako gutunean salhakuntza gogorra egiten zitzaien, halegia, jauntxokeria eta setakeria. Grebaren azken partean ukan duten jokabidea ikusirik, salhakuntza

hori erretiratu ez baina letania batez luzatu egingo lukete orain langileek, segur asko.

Lasarten Michelinek izan duen jokabide gogorra, ez da hemengoa soilki. Berdin jokatzan du nonnahi eta beti, tradizio luze zabal batek ongi frogatua duenez.

Leku guztietan dira Michelindarrak, tratagaitzak. Frantziako CFDT sindikatu sozialistakoek esan zutenek, Michelinenean sindikatu lana egin nahi izatea, militante izatea da. Militante izatea, hots, burruka egitea, ez baitu holakorik lantegiak barkatzen. Zailtasun honegatixek hain zuzen, urri dira Michelinen lantegietan sindikatuetera sartzen direnak. Argigarri dira konparaketaren zifrak: Frantzia normalki sindikatuetera sartzen direnak 35 badi dira, Michelin lantegietan 10 besterik ez dira.

## KAPITALISMO HUTS-HUTSA.

Eskulan merkeko merkatura jottzeko fama du Michelinek. Horretarako, azken bolara honetan, ekonomiazko krisiaz baliatzen ari omen da. Krisi honen atxakiarekin, Frantzia eta Alemanian esaterako, lanpostu zenbait hixten ari da, horik bertan Espainiara etas lekuz aldatzeko. Logika kapitalistari garbiena.

Bata bestearekin loturik baitago gehienetan, eskulan merkeko herriak sindikaturik ahuleneko berberak izan ki. Michelinek ez du eskrupulurik horretan ere, lege horiez baliatzeko orduan. Kasurako, hemengo sindikal legerik atzeratuenetan, inguruko entrepresa-gizonak atzera-koitzat joak izan arren, babestu ohi da Michelin. Oraingo grebakoan, bistakoa denez, Europan ez zukeen hola jokatzetik izango. Kontu egin Lasarten, 22 langile utzi dituela kanpoan, horien artean zortzi sindikal juratu, entrepresaren aurkako epaiketa irabazi dutenak, gainera.

OTSAILA

16%

OTSAILA 1977

# otsailaren 16an hasia

Lerro hauk prestatzen ari garenean, lanean hasteko izenak ematen batzu, eta lanean hasi berriari beste batzu daude Lasarteko Michelinen. Kanpora bidaliak izan dira eta denak, lanean iraun nahi badute, lan-eskaria beregitera obligatu ditu entpresak. Gogorra da hau, jasangaitza. Langileen Batzarreak, grebari denak jaurtikiak zirela jakin zuenean, Gobernadoreari eragin gutunean garbi asko esaten zioenez, "Humillación o Violencia" zen entpresak langileriari eskaini zion alternatiba edo hautabeharkizuna. Ez bat eta ez beste aukeratu dute langileek. Lanera sartu badira ere, burua makurtu gabe, tente sartu dira, batasuna gordetzearren, eta barrutik burfukan irauteko gogotan.

Historia luze baten ondoren iritsi dira jokabide honetara. Otsailaren 16tik maiatzaren 24ra zein bide luzea dagoen! Hiru hilabete luze iraun du greba honek. Hiru hilabete paseak. Ehun bat egun, laster esaten da.

Otsailaren 16an hasten da greba Lasarten. Jadanik burrukan ziharduten, lehenengo Valladolidekoek eta gero Arandakoek. Hauekiko elkartasunagatik eta Batzorde Orokorra eta Komenio lan-tratua lortzeko geratu ziren Lasartekoak.

## TRATUGAIRIK EZ.

Negoziatzeari ekiteko orduan, lehen unetik ezezkorik biribilenarekin erantzun zien Zuzendaritzak. Informazio gisako harreman bat edo beste izan da langileen eta patronalaren artean, baina hori da dena. Traturik ez da fitsik ere izan, Zuzendaritzaren esanetan, ez baitago tratugairik.

Proposamenduei ez die sekulari Zuzendaritzak erantzun. Honen erantzun bakarra, jendea kalera igortzea izan da. Hasera bertatik ia. Otsailaren 19an bi langile dira botetak eta Juratuko Idazkaria bera espedientaturik. Gainerontzeko grebariak hilaren 25 arte lanik eta soldatarik gabe zigortuak dira.

Anartean, sindikal indarrak oro, ezkutukoak jakina, elkarrekin bildu dira. eta erabaki garrantzizko bat hartzen dute: Sindikatu bakoitzak, burruka honetan, ez du bere izenik erabiliko; erabakiak eta agintea Batzarreak bakarrik izan dezake.

## EZKUTUKO SINDIKATUAK ELKAR

Batzararen nagusitasun hau berehalakoan praktikara eraman beharra izan zen. Hilaren 19an bertan, botumateak hasi ziren. Batzarreak zer erabaki, huraxe beterazi zen. Greban iraun ala ez izan ohi zen maizenik botugaia. grebarako erabakia argi ikusi zen haseratik: 1936, grebaren alde; 25 aurka; eta 10 zurian. Maiatzaren 6an oraindik: 80 egun lanuztean egin ondoren, langileen gogo bera atera zen Batzarrean nagusi: grebaren alde 2.045 botu, 85 aurka eta 17 zurian. Erabakia botutara jartzeari gogotik eutsi nahi izan zitzaion beti, demokraziako izpirituaren seinale. Arras demokratiko gerta zedin, gainez, ezkutuko txartel bidez eman ohi zen boza.

## EMAZTEAK ERE BURRUKAN.

Otsailaren 27an Michelin kontsumo-kooperatibak ere kolaboratzea eta langileei laguntzea deliberratu du. Grebarien emazte zenbaitek ere gizonen ondoren burruka egin nahi dute, bilkuretara eta kale-manifestazioetara eta joanez.

Martxoaren 5ean jende gehiago bidaltzen du kalera entpresak. Denerata 22 dira orain, horien artean 8 karagu sindikal. Eta azkenik, maiatzaren 19an, sartu ala ez langileek eztabaidatzen ari zirelarik, denak kale gorrian uzten ditu Michelinek.

Martxoaren haseratik, soluzio bila jo eta ke, etengabean, ibili da Langileen Batzorde bat. Agintea edo influentzia ukan dezaketen hainbeste jenderekin egon dira. Michelinekin hitz egin hasteko bitarteko baten bila ibili dira langileak. Leku askotan ate joka. Harritzeko ere ba da zenbat jendekin egon diren. Batzu aipatuko ditut: Kimik Industriaren Lehendakari Nazionala, Kimikako U.T.T. delakoaren Lehendakari Nazionala, ASEG edo Gipuzkoako Enpresa-gizonen Erakundea, Gipuzkoako Agintari Nagusiak, Industriako Ministroa, Lanaren Ministroa, Sindikal Harremanen Ministroa, Eskudero Prokuradorea, Madrileko frantses Enbaxada...





Ni Ez NaiZ  
BASAJAUNA  
LANTEGIJAUNA  
BAiZiK.  
iKARA ZAITEZTE!



# grebaren arrazoiak

Basa grebatzat jo dute Lasarteko hau Michelingo nagusiek. Jakina denez, legezko sindikal bideetatik at hasi eta ibili zelako. Baina nork ez daki basatizat greba hau kontsideratzeak ez duela ez buru eta ez buztanik? Esanmoldea Europako demokraziatzako herrietatik jasoa denez, hango legeak beren osoan hartu beharko lirateke greba honen nolokotasuna epaitzeko ere. Hango sindikal legetatik at, salhakuntza horrek ez du txakur tikirik balio, itsuenak ere dakusanez.

Basa grebaren salhakuntza onhartu egiten dute zenbaitzuk, baina alderantzira ulertuz. Basa greba? Bai, horixe, baina Michelingo patronalarena.

Kanpoko "elementuek" egina eta eragina dela ere sinesterazi nahi izan dute nagusiek, kanpotik grebarako dirua zetorrela eta politizatua dela eta salhatuz.

Zuzendaritzak, greba arrazoirik ez du sekula aitortu nahi izan. Langileekin hitz eginaz, kontrara, arrazoi bat ez baina mila atera ohi dituzte. JOERA ZIKOITZA.

Lehenengo arrazoi-moeta, azpi-azpian dagoena, "ras le bol" edo lantegiko giroarekin bete bete eginda egoatea dateke. Zikoitz jokatzeko du Michelin. Zikoitz eta gaizto, askoren salhakuntzaz, dena kontrolatu, neurtu, fitxatu egiten baitu. Agintekeria bide da nagusi lantegian. Sailen buruen lana, itxuraren arauera, teknika lana baino areago zaintzaile eta poliziarena omen da. Kotizatzeo eta zigortzeko orduan lantegiko lanak bakarrik ez baino politikazko eta sindikal portaerak ere munta handia du. Zigorbidez edo ta lankidetasuna izorratzeagatik, soldata Jesberdinekin jokatzeko omen du.

Giroa gaiztotzearen erroen artean, lanarekiko politika ere salhatua izan da. Esan nahi baita, lan-erritmoa bizituz eta azkartuz joan dela azken urteotan Lasarteko Michelin. Erritmoa gehitzeko erabiltzen duten estratagema, hau da, hots, kantitatea gehitzea eskatu lehendabizi, gupil gehiago egiteko, halebria. Kantitatea zaintzean, kalitateak galdu egin ohi du. Orduan, bigarren etapa batetan, gehitzea lortu

denean, kalitatea eskatzen du. Eta etengabeko joanarian holaxe, zikloka. Jokabide hau nolabait gelditzeko, sindikatuetakoa kontrolatzaileak eskatzeraino iritsi dira Lasarteko langileak.

Hau guztiau zegoen greba honen azpian, ondo ondoan, noiz agertuko. **BESTE ARRAZOI BATZU.**

Baina ez dira hauk greba egiteko arrazoi edo zio bakarrak. Higuinaz gain

hurbileko arrazoirik ere izan da. Otsailaren 16an, lankidetasun internazional bultzaturik kalera abiatu baziren ere, elkartasunarena ez da arrazoi bakarra izan. Behin eta berriz hauxe frogatzen saiatu da Batzarrea, Zuzendaritzaren gezur honen aurka. Eritzi publikoak leku askotan hori pentsatzen baldin badu, informabideen alderdikeriagatik da. Izan ere, Zuzendaritzak bere postura agerian erakustea izan duen artean, debekatu egin zaio gauza bere langile-riari.


Lasarteko Michelin Batzarreak argitaratu duen edozein dokumentu eskutan hartuz, egin dituzten eskakizunak bistan daude. Esaterako, 45 orduko astea eskatzen zuten. Eskabide horrek indarra galdu zuen, greba bitartean, Gubernuko legeak 44 orduko astea ontzat eman zuelako.

Eskabidetan nagusienetakoa, Jurado Zentral edo Batzorde Nagusia eraikitzea zen, halebria, Penintsula mailako Michelingo langileen artean egitekoa. Hori ere lortu dute, hots, Batzorde hori langileek bil dezakete aurrerantzean.

Komenio deritzon lan-tratuari ekitea izan da beste eskagai bat. Hone-tan diraute oraindik.

Eta egoera konpontzen hasteko eta hau denau lortu ahal izateko, elkar-riketa proposatu izan dute beti bide bezala.

Azkenik, lanuzteagatik, zenbait langile kalera jaurtiki zituenean entrepresak, hauk barne hartzea ere Batzarrearen etengabeko exigentzia izan da. Kanpora bidaliak hartzea, eta grebagatik inortxo ere ez zigortzea.



## “gordeketan”

### “EGUNIK EZ BATZARRERIK GABE”

Batzarre orokorrak hautatutako Sindikal Batzordeak, Donostiako Organizazio Sindikalaren aretoetan egin ditu bere bilerak hiru hilabeteetan.

Batzarreak abentura gehiago izango du.

Lehenengo hilabetean, lantegiko jantokiak hitxi zituztenean, bertako parking-ean bildu zen batzarrea. Egunero. Goardia zibilak ez zuen desegiteko agindurik eta urrutiko bigilantziarekin konformatu zen.

### BAIMEN “EGOKIAK”

Gobernadoreak, martxoak 9, langileen emazteen ordezkarietara, batzarrea “utzi” egiten duela adiarazten die, langileen jokabidea bidezkoa eta zibila delako. Polizi indarrak ez dira zartzeko, horrela iraunen duten bitartean. Baina laister jan zuen emandako hitza. Martxoak 15, ohi bezala betiko parking-era hurbildu zirenean, harridura handiz, goardia zibilek hartua zegoen. Eta Usurbileko parroki elizara jo zuten. Ez zen azkeneko eliza izango.

Ondorengo bi hilabeteetan batzarrea biltzeko burruka gogorra egin behar izan dute. Batzarrea legalizatzeko mila eragozpen gainditu behar zuten. Sindikaleko delegatuak uzten zuenean, Gobernu Zibilak ukatuko zuen, eta alderantziz. Biek utzi eta gero ere ez zen seguru. Azken unean polizi indarrek galerazi zezaketen, baimena kendu zutela eta. Halaz ere, tarteka bilera legalik egiterik izan dute. Gobernadorearen baimen ukaketak enpresaren taktikari laguntzen ziola garbi gelditu da, batez ere azken hilabeteetan. Adibidez azkeneko, maiatzak 22, ukatu zirenean. Barrura sartzeko erabakia hartzea zihartzela jakin eta enpresari lan kontratua hausteko denborarik izan zezan, ukatu zuen eta.

Baina langileak eguneroko batzarrea nahi zuten. Orokorra ezinezko zenean, lantegi sailen arauera taldekatuta. Lasarten ez zenean, elizetan. Handik behin eta berriro botatzen zituztenean, Donostiako Sindikalaren aurrean biltzeko eskubidea eskatuz manifestatu egingo ziren.

### GORDEKETAN

Azken bi hilabeteetan, goardia zibilak eta 2.800 langileak “gordeketan” jostatzen ibili direla esango genuke. Nork nor enganiatu eta harrapatuko. Usurbileko elizara, bezperan bezala, martxoaren 16an, biltzeko asmoaz etorri zirenean, goardia zibilek ez zuten utzi. Donostiako Buen Pastor katedrale-ra jo zuten. Ondoren beste eliza ezagutzeko aukera izan dute langileak: Donostiako “Mariaren Bihotz Garbiarena”, Tolosako frantziskotarrena, eta gero, bertako klaretiarrena, Zarauzko parrokia, Aiaiko parrokia, Errenteriakoa. Batzarre gose honek tokirik bixienetara eraman ditu. Aikizako plazara bezala Pasaiara. Hernanira bezala Zarautzeko Santa Barbara mendi gainera.

Batzarrea biltzeak abentura oso baten lanak eman dizkie. Hain urrutiko tokietara hainbeste lagun eraman eraztea ez zen erraza. Biltzen zirenak asko egin zuten. Buen Pastor bete egin zuten. Tolosako S. Frantziskon milatik gora ziren. Zarautzeko Sta Barbara gailurrean 800 ziren. Bortxa publikoa saihesteko trebezia handiz jokatu dutela aitortu beharra dago: Azken momenturaino “gordelekua” isilik gorde, poliziarentzat “pista” faltsoak zabaldu etab.

Nagusiek eta langileek bazekiten batzarrea harma bat zela. Eta horixe kendu nahi zioten eskutatik.

Egoera honetan miresteko da, ehun greba egunetan laurogeitik gora batzarre egitea.

# langileen emazteak bat prentsaren jokabide maltzurra

Entrepresak langileria sakabanatzeko eta beronen iraupena puzkatzeko langileen emazteak erabili nahi izan ditu. Etor lekizkiekeen kalte eta mehatxuen berri gutun bide emanaz.

Baina emazteek beren senarren burrukari eutsi diote. Bat jokatu dute. Lehenengo egunetatik batzarrean parte hartzeko eskubidea eskatu zuten. Eta eman zitzaizen.

Batzarreak grebarekin iraun ala ez boza ematen zuenean, emazteek ere bere aldetik beste hainbeste egiten zuten. Martxoaren 10ean, adibidez, 162, grebaren alde zeuden, 1, zuria, eta 0, kontra. Martxoak 23an, berriz, 95 alde, 1, kontra, 2, zuri.

Beste ekintzak ere aurrera eraman dituzte. Martxoaren 6an, 500 bat emakume lantegiko ateetan bildu ziren, eguerdian, lanean ziautenek irten behar zuten orduan. Manifestazio pakezko eta isila zen. Egunero hori egin nahi zuten. Baina hilaren 11an, goardia zibilak azaldu zitzaizkien, eta uxatu zituzten. Ez dira izutzen. Gora jotzen dute. Eta martxoak 22, gobernadoreak, lanetik ateratzeko orduan, 13-45tik 14-30ra, ate aurrean biltzeko baimena ematen die.

Emazteen ordezkarri batzu ere behin baino gehiagotan gobernadorearekin eta beste batzurekin, beren senarren burrukaren alde mintzatzeko egon dira.

Emakume hauek greban izan duten hartukizuna ez da langileekin elkartuta egotea bakarrik izan. Iraupenerako, hauxe oso garrantzizkoa izan bada ere. Beren jokaera ez da batere "errromantikoa" izan. Egurra eta detentzioak ezagutu dituzte manifestazioetan. Berrietako zortzik furgoneta batean hitxita gau osoa igarotzea zer den frogatu ahal izan zuten.

Eta hau guztiau ez da anekdota hutsa. Lanuzte luze honetan langileriak famili eta herri mailan izan duen batasun harrigarriaren ezaugarria da.

Prentsaren jokabidiak ez ditu Michelingo langileak asebeste. Edo interes eskasa edo joku maltzurra ikusi omen dute prentsaren aldetik.

Kasetari guti etorri omen zaie informazio bila. Informazio Komisioek joan behar izan dute beti haiengana. Bidenabar esan dezagun, ANAI-TASUNAREN kasuan, geu gaitzkeela informazioa bilatzen, biltzen eta irakurleari ezaguterazten gehien saiatu garenak.


Kasetari askoren axolarik eza salhatzen dute Batzordekoek. Mahai ingurak egin eta informazio eskaini zaielarik ere, ez omen azterketa sakonik argitara eman.

Prentsa guztia, hala ere, ez da berdin baloratu behar. Astekariak, egunkarien aldean, jatorrago jokatu dute. Ez da zaila. Baina hau ere aski apal. Mihi gaistok diotenez, greba luze hau Madrilen gertatu izan balitz, beste oihartzun bat izango zukeen prentsan. Hiru hilabete iraun duen greba bati, hiru miloi lan-ordu galdu dituen greba bati, langile bakoitzari 50 mila pezeta-tik gora eta Michelini 5 mila miloi galerazi dizkien greba bati, leku gehiago zor lioke prentsak, Batzordearen ustetan.

Donostiako prentsarekin daude -- minduenak Batzordekoak. Ez da ulertzeza --edo errazegia?-- Donostiako "La Voz de España" eta "El Diario Vasco" egunkarien jokaera. "La Voz de España" egunkariak, haseran, txintxo-txintxo eman ohi zuen grebaren berri. "El Diario Vasco" delakoak fitsik ere ez, boikotaren mehatxupean berri emateari ekin zitzaion arte. Okerrena gero dator: bat batean batak eta besteak publikatzeari utzi egiten diotela. Hala ere, gaitzerdi hori besterik ez balitz. Zeren eta, hau da handiena, gero, Michelingo Zuzendaritzaren ikuspegi soilki argitaratzen dutela. Erantzun bat baino gehiago langileen aldetik periodikura bidali arren, ez zen deus pasatzen. "**Derecho de replica**" delakora jo zuten langileek, baina alferrik.

Irratiak eta telebistak sensazionalismo bila ibili omen dira. Esaterako, Lasartekoaz telebistak zerbait eman duelarik, gogorkeriara jo izan den unetakoa izan omen da.

# koarteletik pasa behar



Greba honetan langile eta entrepresaren buruzagitzaren ondoan, beste hirugarren protagonista batzu egon dira: Goardia zibilak.

Grebaren lehen hilabetean nahiko aparte egon ziren. Batzarreak galerazten hasi zirenez geroztik, hehen mailako protagonistak bilakatu ziren.

Gobernadorea, ba dirudi, langile arrazoiak ulertuko balitu bezala mintzatu dela, Batzorde sindikalarekin edo langileen emazteen ordezkariekin hizketatu denean. Baina bere mende dauden indarrek politika izutzaile bat eraman dute.

## EGURRA

Kontrolak, karneta kentzeak, multak, detentzioak, egurra maiz gertatu dira. Hernanin, tiroak ere bai. Komisaldigira deklaratzeko eramanak edo deituak izan dira. Adibidez, Frantziako beste Michelingo lantegietako ordezkariekin egon ziren batzordekoak. Gau asko etxetik kanpora lo egin beharra izan duenik ere ba da. Egoera hau gogortuz joan da greba luzatuz zihoan neurrian.

Giroa, gero eta beroagoa zen. Gazteizen gertatuko tragediaren antzeko zerbaiten beldur zegoen jendea. Polisi indarren jarrera eta jokabidearen beldur. Kalean edo tabernan lasai zebiltzenak joak izan dira. Tratu txarragatik Donostiako erresidentziara joan beharra izan duenik ere bada.

## PROBOKAZIOAREN AURKA BARETASUNA.

Politika probokatzaile honen aurrean langileriaren jokabidea eta konsigna baretasuna izan da. Baretasun harri garria. Egurra eta detentzioak eta odol isurketak gerta zitezkeeneko okasioak ahal zen neurrian baztertu. Alferrikako odolik ez zen nahi. Prezio handiegia izan zitekeen. Biolentziara jo gabe, tamaina honetako greba bat aurrera ateratzeko gauza izatea da langile hauen heldutasunaren ezaugarri bikain.

## MICHELINEN ETA KOARTELAREN ARTEKO

kolaborazioa ez da berria. Eta ez da beste lantegietan aurkitu daitekeen tankerakoa. Michelin, honetan ere berezia da. **"Michelin c' est différent!**

Ez da gatazka garaikoa bakarrik kolaborazio hau. Michelingo lantegira sartu nahi duzun unetik entpresak eta lantegiak jakingo dute elkarren berri. Edozein lantegitan eskatu ohi diren paper, firma eta dokumentuak eraman eta egina dagoenik ez ezazu uste. Zure harri durarako, Lasarteko koarteletik pasatzeko esango dizute. Ez, ez. Ez zaitetz harrit. Zuzen entzun duzu. Koartelera joan behar duzu. Eta handik, eta psikologoaren laguntzaz jasotako datuekin fitxa bat irekiko dizute. Fitxa hori, datu teknikoekin baino gehiago, zure portaera eta pentsakerari buruzko datuekin beteaz joango dela pentsatzekoa da.

Michelingo aurreko urteetako gatazka guztietan garrantzi handia izan dute beti Lasarteko Goardia zibilek, eta beste polisi indarrek. Eta ez lantegi inguruko kalea zaintzeko bakarrik. Entpresak berehala deitu izan die geldik edo batzarrean bilduta zeuden langileak lantegiak indarrez botatzeko edo mehatxuz ateratzeko. Bide arrunta bezala erabili du polisi indarra lantegi barneko istiluak konpontzeko. Michelingo atezainen artean ere goardia zibilak edo izandakoak ugarituz joan dira azken zortzi urteotan.

Ihazko irailean, Euskal Herri osoan segurenik gertatu ez zena gertatu zen. Herio zigorren aurkako kanpaina hartan egindako greba politikoengatik lau langile kalera bota zituen Lasarten Michelinek. Guztien artean nabarmen gelditzeko eta eskuinarekiko bere sinpatia azaltzeko lotsarik ez zuen izan.

# erresistentzi kutxa

Jendea erre gabe, biolentziara jo gabe, greba hautsi gabe, nola iraun daiteke horrenbeste denboran? Askok egiatan dio galdera hau bere buruari Michelingo greba ikusiz, eta zalantzarik gabe aztergai interesgarria da hori sindikal indarrentzat.

Azterketa sakonik egiteko asmorik gabe, lehen kolpez ikusten ditugun arrazoi batzu, hauk izan daitezke: Batzarrearen lehentasuna; aurreneko hilabetean, bilkurak onhartuak izatean, antolatzeko astirik izan zela; herri giro ona, laguntza eta lankidetasuna; langile zenbait edo baserrian edo bestela pluri- lanetan ibiltzea...

## EUROPAKO LAGUNTASUNA.

Era askotara jarri da agerian laguntasan hori. Langile eta sindikatu mailan, esaterako. Martxoaren 8an Lasarteko Michelingo Batzorde bat Frantziara doa, Michelin-Europako lantegitako ordezkariekin egotera: informatzera eta lankidetasuna eskatzera. Geroztik ere harremanik eta joanetorrik ez da falta izan. Fruiturik ere ez. Behin eta berriz elkartu dira Lasartekoekin Europa osoko Michelin lantegietakoak. Martxoaren 20an, ordu t'erdiko geldialdia egiten dute Italian; Frantziako Clermont-Ferranden lau orduko, eta Frantziako gainerontzekoetan ordu batetik hirura. European 60 bat mila langile elkartu dira Lasarteko burrukarekin. Bestalde, Alemaniak ere lagundu du, Kanadak ere bai. Eta ba da besterik. Denen berri jakiterik ere ez omen da erraz, Batzordeak dioenez.

## ENPLEGATUAK, PUNTU BELTZA.

Penintsula mailan ere izan da elkartasunik. Areagao oraindik Euskal Herriko langileen artean. Baina ba dugu susmorik Lasarteko langileak ez ote diren mementu batzutan, aski bakarrik sentitu. Nahi eta uste adinako erantzunik ukan ote dute, gero? Lasarteko Michelin bertako enplegatuak ere ez zaizkie solidarizatu. Hori burrukaren puntu beltz bat bezala ikusten genuela adieraziz, atera dugu arazo hau mahai gainera langileen ordezkarien aurrean. Egoera sozio-ekonomiazkoari dagozkion arazoekin, arrazoi kojunturalekin, esplikatuz nahi izan dute, unea ez zela egokiena esanez dela ekonomiazko krisiagatik, dela beste lantegietan eskabide-burrukak amaitu berri zirelako, dela Michelingo lanera jiratu berri zirelako. Egia da aurtengo Maiatzaren lehenak berak ere ez duela ikaragarriko burruka gogorik plazaratu.


## HERRIAREN LAGUNTASUNA.

Izan da beste ekintzarik eta laguntzarik ere. Harrizteraino, egon ere, Herri giroko laguntasan hau asmamen bizkorrez egina eta antolatua izan da. Otsailaren 24tik hasi zen lankidetasuna lehian. Medikuek, tabernak, dendak Bankuak, Kutxak, Ikastetxeak, denek parte hartzen dute. Jeneroa, esate berrak, **"al por mayor"** edo handika erosiz, merkeago har dezakete langileek. Diru-eskasiagatik, Bankuek, Kutxek, Ikastolek, Eskolek diru-kobraketak atzeratu egiten dituzte. Otsailaren 27tik Michelin kooperatiba ere langileen aldera pasatzenda.

## HAMAR MILOI.

Diru bilketarako ere asmamena azkartu egin beharretan aurkitzen dira antolatzaileak. Zer egin? Grebak iraungo balu, dirua behar da. Erresistentzi Kutxa sortzen, langileentzako dirua hor sartzeko. Eta sartu ere, ia 10 miloi pezeta sartuko dira Kutxa horretan (guti bat, 300 mila bat pezeta Europatik; gainerontzeko hemen lortua). Baina nola Kutxa bete, nola dirua inguratu? Eranskailuak eta bonoak sortuz, jaialdiak eta txapelketak antolatuz. Kirol lehiaketak antolatzen dira. Kantaldiak ere bai, Letek, Lupek, Laboak eta bestek parte hartuz. Gipuzkoako zazpi koru inportantek ere langileen alde abesten dute. Arte-erakusketa bat ere euskal artistek langileen alde eratu zuten. Eta gero, ba da elkartek edo partitularrek bidalitako dirua: ikastola batzutako irakaslek, Bilboko Karmelitek, beste askok. Caritasen laguntzarik ere izan da.

Erresistentzi Kutxa honi esker, diru hestuasunik ez du grebak izan. Seinatzekoak dirateke, alde batetik, Erresistentzi Kutxa honen antolamendua eta, bestetik, langileen heldutasuna. Isitilurik gerta ez zedin, grebariak ez suen diru-laguntzarik hartzen baizik eta **"txartelak"**, **"valeak"**. Eta bestalde, aprobeitxategi izpiriturik gabe, etxeko diruak ahitu artean, ez suen inok erresistentzi Kutxara jotzen.



# BATZARREA DA NAGUSI

Grebako protagonista lehena Batzarrea izan da. Gurekin izan ziren langile ordezkariak malte duten esanmoldean esateko, langileen organizazioak Batzarrean hustu egin ziren. Batasunaren amoreagatik, sindikatuek orok beren talde interesak baztertu egin zituzten. Sindikatuen ez beste talderen siglarik ez erabiltzeko hitzarmena egin zuten denek lanuztearen hastapenetan. Eta oro har, gehienek satisfazioz bete dute hitza.

Ez dago zalantzan jartzetik, batasunean jokatzeko hau izan dala Lasarteko Michelinen ikusi den heldutasunaren seinalerik frogatzaileena. Batzarrea nagusi bilakatze hori, benetan burutsua izan. Ikaragarri zaila izanez, are merita-garriagoa da batasun hori gure giro honetan. (Gizarte-azgertzaile zantzen-gandik jakin izan dugunez, Lazarteko Michelinen lan egiten duten sindikatuen artean indartsuenak ELA-STV, USO eta CCOO omen dira. Lasarteko batasun hori batasun oinharritzakoago baten adierazgarri ote da ala inork nagusitzeko aski indarrik ez duelako akordioa?)

## SINDIKAL BATZORDE BAT

Batzarrak hartzen ditu erabakiak oro. "La Asamblea es la soberana". Sindikatuetako militante guztiak honetara makurtu dira, talde jakinik zuzendari edo gidatzaile izan gabe. Grebaren koordinaketa aurrera eramateko Sindikal Batzorde-bat eratu zen. Batzarreak onhartu eta juratu eta enlaze eta lantokietako ordezkariak osaturiko Batzordea.

Sindikal Batzorde hori geldi eta alferkerian egoteko ez beste denetarako

sortua izan zen. Bost lan-komisiotan partitu zen Batzordea: informaziokoa, ekonomiazkoa harreman ofizialetakoa, Michelingo lantegiekiko harremanetarako gainerontzeko

Haru eta hona ibili dira hauk, etengabe, batzuetan atzerrian lankidetasuna sortzen, beste batzuk informatzen, dirua biltzen hirugarrenak; beste batzu, elkarrekizetak eta jenda ofizialekin konponbide bila...

Eta egin ohi dutenaren berri, itzultzerakoan, Batzarrera aurkeztu behar zen. Honek hartzen baitzuen erabaki definitiboak. Eta, egia esan, langileak ez dira, ez, lo egon: ehun egunetan ia ehun bilera egin dituzte. Traba guztien gainetik eta arrisku guztien azpitik, mobilizazio harrigarria da, hor lortu dena.

## GEHIENGOAREN BORONDATEA.

Esan bezala, erabakiak hartzea Batzarren gain aginterik, Batzarreak agindutakoa beterazi besterik ez zuen egiten. Ba zen, aldamenen bururak. Gauchistekin. Greba kalera ateratzen lehiatu ziren hauk, greba bera legalizatzen joaz. Frankotiradore izan dira eta zuzendaritzarik markatzerik ez dute izan. Gehiengoaren borondatea izan da uneoro errespetatua, hala zer harreman sortu behar ziren esaterakoan nola greban iraun ala ez erabakitzerakoan.

Batzarrearen bidez greba bere irauanean zuzentzean, beraz, gauza guztien gainetik, batasuna zaintzeko sindikatuen borondate hori lehen mailako faktorea izan da. Eta horixe da, batasuna, langileentzat grebaren ondasunik preziatuena.



# grebaren azken egunak

ERRE ALA BURUA TENTE SARTU.

Valladolideko langileak, martxoak 22an, ekin zitzaizkion 51 egun lan oporrean igaro eta gero. Arandakoak maitzaren 4an sartu ziren. Lasartekoak, bakarrik gelditzerakoan, berehala sartuko zirela pentsa zitekeen. Baina maiatzaren 6ko botazioak, gehiago handi bat (2.045 alde; 85, aurka; 17, zuri) grebaren alde zegoela garbi azaldu zuen.

Halaz ere hiru hilabeteko greba, Michelinen historiak Penintsulan izan duen luzeena, asko da. Eta indarrak neurtzeko ez da gutti. Eguneroko batzarre legalak edo ilegalak argi utzi du langileen batasuna eta indarra. Baina, baita, garbi dago entresa kapitalista multinazionalaren egoskorkeria ere. Zuzendaritzak aurren eguneko jarrera ez baitu zipitzik ere mudatu. Irtenbideak eskaintzen saiatu ordez, egarozpenak pilatzea izan da haren jokabidea 3.000.000 produkzio ordu galdu eta gero samurtzen ez zenak, pentsai zitekeen, honez gero ez zuela amore emango.

## ARRISKUAK.

Bestetik, tentsioa gogortzen ari zelako, biolentziara jotzeko, eta honekin batera langilea eta erretzeko arriskua zegoen.

Egoera honen aurrean bi jokabide har zitezkeen: greban azkeneraino iraun ala lanean hasi. Langileen ordezkaritzan, Batzorde sindikalean bi joerakoak zeuden. Gehienak sartzekoaren aldekoak ziren.

Maiatzaren 20an, kontrako bi proposamen aurkeztu ziren Batzorde sindikalak egin zuen bilkuran.

Sartzekoaren aldekoek ondorengo arrazoietan oinarrizten ziren: Michelinak ez du amore emango. Batasuna eta langileriak bere indarrengan lortu duen konfiantza galtzeko arriskua dago. Greba luzatuz gero biolentzia ebitatzerik ez legoke. Langileen eskabideetatik ere batzu lortu dira (Michelin-go lantegi guztientzako Juratu nagusi,

bakarra, eta Komenio orokorra. Lege berriak gisa hortako Juratu nagusirik antolatzeko eskubiderik eman badu, puska on batean Michelingo grebari esker izan da). Lanetik botetak izan direnen aldeko burrukan barrutik segitzeko egitura bat antolatuta gelditzen da. Guzti honegatik batzarreak —grebaren jabe bakarrak— ateratzea erabaki zuen bezala, sartzeko aukera egin dezake. Horrela, errepresaliarik ez izateko moduan, belarriak politikoa sartu gabe, burua tente lanari hel lekiok, hori bai, barrutik burrukan irauteko asmotan.

## LUZATZEAREN ARRAZOIAK.

Bigarren proposamenak, langile-riaren batasunari eta klase kontzientziari buruz eritzi berdinekoak izanik ere, balorapen desberdinak zituen grebari buruz. Hiru hilabeteetan jarraitutako biderei biguna eta alferrikakoa zeritzon. Elkarrizketa mediazioa eta posible egingo zituen hirugarren pertsona baten bila ibili da, batik bat giro ofizialetan (ministerioak, sindikato ofiziala, gobernadorea etab.). Eskabideetatik ez da ezer lortu. Garrantzizkoena lanetik botatakoak hartzea baita une honetan. Eta lortu dena ere airean dago, beste Michelingo lantegietako Juratu gehienak kalean gelditu baitira. Errepresaliarik izango ez den inolako segurantzarik ez dago, Valladoliden eta Arandan gertatutakoa ikusirik. Lortu den langile indar batasunaren eta klase zentzuaren izenean, hain zuzen, orain arteko metodoak fruiturik eman ez dutelako, utzi, eta langile klaseak bereak dituen metodoekin iraun behar da. Gure esperientziagatik ondo frogatuta ba dakigu barrutik eze ezin daitekeela egin. Michelin ere haseran baino ahulagoa da. Beraz, zer egin behar da? Greba luzatu; lanean ari direnak behartuta atera; greba Lasarte inguruko beste lantegietara zabaldu.

## PATRONALAK AURRERA HARTU.

Lehen proposamenak, Batzorde sindikalen, 42 aldeko izan zituen; 14, kontrako; 15, zuri.

Bi proposamenak Maiatzaren 20ko batzarrean auzkeztu ziren. Eta arazo batzu konpondu nahi ziren. hurrengo asteko asteartean edo lanera sartzeko erabakia batzarrean botazio bidez hartu baino lehen, 22an batzarre bat egin zen, baina puntu horik argitu gabe zeuden eta ez zen azken erabakiarik hartu. Eta une kritiko honetan, Gobernadoreak, 23an, larunbatean, batzarrea biltzeko baimena ukatu zien. Patronalak, aurea hartuz, bere joku zitala azkeneraino eramana zezan, izan zen hori. Lanera sartzeko erabakia hartzera zihozela jakin, eta batzarrea ukatzea, eta lan kontratua langile guztiei hausten zitzaie la adieraziz postara gutuna eramatea, ez da kasualitatez egun berean gertatu. Igandeko prentsa-tik jakin zuen langileak erabaki gogor honen berri.

Batzorde Sindikalak gutun larri bat bidali zion azken gertakizun honen kontra protesta eginaz, eta Michelingo bere erabakian atzera jo zezan eginahalak egin zitzaala, eta astelehenerako batzarrea egiteko baimena eskatuz.

Berandu zen. Astelehensan, maiatzak 24, goizetik zenbait langile, batzarreak hartutako erabaki baten zain egon gabe, lanean sartzeko eskabidea zurian firmatzen hasi zen. Langile batasuna apurto ez zedin Batzorde Sindikalak berak kontseilatu zuen orduan eskabidea firmatzeko.

Bistan da entpresak, langilea burua tente sartzerik ez zuela nahi. 2.800 langile hauetatik berak nahi dutenak, eta berriak balira bezala, hartzeko eskubide legala baitauka orain, lan kontratuak hautsi eta gero.

Paperezko kontratuak hautsi ditu. Baina ez langileen batasuna.

## burrukaren fruituak

Greba biribiltzea ez da posible izan. Lanetik irteteko bezala lanera sartzekoa beren eskutan gorde nahi izan dute beti langileak, baina azken mementuan, Zuzendaritzaren jokuagatik, azken erabakia kontrolaezina gertatu zaie. Langileak ez zitezten burua tente lanera sar, lanera jiratzea deliberraten ari zelarik, kale gorrian uzten ditu entpresak 2800 langileok. Probokaziotzat jo du zenbaitek michelin entpresaren jokamolde hori.

Greba hau, oro har, guztiz positibotzat daukate Sindikal Batzordekoek. Mila arrazoiengatik. Eskabide jakin eta konkretu batzu ere erdietsi dituzte, zerbaitetan jartzen dute greba honen garaitzapea. Batik bat lortu dena langileen ausartzia eta batasuna da. Ausartzia. Nortasunez jantziago, jabetuago atera dira langileak. Munstro honen aurka burrukatzerik ba dagoela sinesten dute orain. Ernatze bat bezala izan da askorentzat, iratzartze pizgarri bat.


Batasuna da burruka honen fruiturik zorierna. Organizazio mailan eta oinarrrian lortu den batasuna. Batasun hori lortu ahal izateko, Sindikatuak Batzarrean hustu egin ziren. Batasuna jokatu izan da beti. Hain zuzen ere, batasun hau ez hausteagatik sartu dira denak batean lanera.

Askatasun sindikala praktikan egiztatzea ere lortu omen dute. Askatasun konkretu zenbait eskuraturik. Sindikatu ofizilean bildu izan da, ahal izan duen bakoitzean, greban sorturiko Sindikal Batzordea. Legezko bide guztiez baliatu nahi izan dute.

Bide batez, Michelin entpresaren egiazko aurpegia ezagutzera eman dutelakoan daude langileak. Michelinen irudia arras aldatu den susmoa dute, aurrerantzean gurpil zapaltzaile bailitzan ikusiko dutela askok Michelin

Beraz, batz beste, antolatzaileen eritzian, balantze positiboa.





# EZKERRA ALA EUSKAL SOZIALISMOA

Ezkerra eskuinerekiko kontrajarreraz definitu ohi da, hotza beroarekiko egiten den bezala. Ba dirudi, beraz, ezkerra eskuinaren osagarria dela, hau da, eskuina ez den guztia ezkerra dela. Honetara —beharbada nolabaiteko erdi eklettiko baten salbuespenaz— ezkerrek bere barruan eskuina edo erdia ez diren jarrera guztiak edukiko lituzke, sozialdemokraziarik bigunenetik hasi eta trotskismorik puntakoeneraino joanez.

Sozialismo, aldiz, ezkerren barruko aukera bat da, sozialdemokrazia, komunismoa edo eta ezkerismo kontestatzaileak, zein bere aldetik, izan daitezkeenez. Sozialismoa, konkretuki, kapitalismoarekin kontradikzioz dagoen aukera bat da, ez da jadanik kontrajarrera huts bat, kontraesanetan dagoen zerbait baizik. Honetan, beraz, sozialdemokraziak ez du tokirik. Ez dago garbi, ordea, sozialismoak ezkerretik bere mugak non dituen, baina hitzaren konnotapen politikoa kontutan hartuz gero, ezkerretik erradikalismoak eta punttako jarreraz sortzeko politika, berak bide bakartzat harturik, baztertzeko dituela dirudi, eta hau guztiau sozialismoak herritar gehienek aukera izan nahi duelako, eta, izatez, horixe da, hain zuzen ere.

Xehetasunok zehaztu beharra zegoen, batzutan euskal sozialismoa egin behar dela esaten dugunean —aspaldion maiz gertatzen denez— zer adierazi nahi dugun hain garbi ez baitago: euskal ezkerra ala, hitzez adierazten dena, euskal sozialismoa eraila, halegia. Gauza biok ez dute ezer elkarren kontra. Ezberdinak dira, ordea; ez dira gauza bera.

Problema, ikusiko dugunez, ez da euskal sozialismoa, euskal sozialismoaren politik erakundea eraikitzea baizik. Egia esan, ez gara ezerezetik irtean; gure atzean, bai denboran eta bai sozial oinarrian, euskal sozialismo egiazko bat dago; sozialismo hau, gainera, askapenaren aldeko eta hurrupaketaren kontrako burukalari eta protagonista nagusia izan da, eta bere burua, hain zuzen ere, burruka horren praktikan eratu du. Horrela bada, problema, orain, jadanik dagoen zerbait eratzea besterik

ez da, edo, bestela esanik, oraintsu arte herri mugimendu bat, berez euskal eta sozialista zena, politik erakunde gisa nola antola daitekeen.

Hauxe da euskal sozialismoaren egiazko problema eta esan beharra dago honez gero ba dela aspaldion erakunde berri bat, E.H.A.S. (Euskal Herriko Alderdi Sozialista), proiektu hori, ondorio guztiakin aurrera eraman nahi duena. Beroni, hementik aurrera euskal sozialismoaren benetako errepresentatzaile politikoa izaten iraun nahi badu behintzat, zera eskatu beharko litzaioke, hots, gure Herrian diren eta oraindik hain eraturik ez dauden beste talde sozialistekin —bai eta une honetan eritzen ari direnekin— konbergentzi bidean sartzeko, eta berak presazkoa denez, epe labur bat ezarri beharko litzateke.

Lehenago ere hegoaldeko E.A.S. (Euskal Alderdi Sozialista) eta iparraldeko H.A.S. (Herriko Alderdi Sozialista), E.H.A.S. sortzeko bildu ziren bezalaxe, bide berean segitu beharko lukete guztiak arlo honetako beste talde batzuekin, elkarren konbergentziarako oraindik puntu askotako gelditzen baitzaizkie, eta honetaz, bai E.H.A.S. i eta bai beste taldeei lehenbailehen saiatzea eskatu behar diegu.

Ba dago, gainera, beste problema bat, ezberdina bada ere, besteak bezainbateko garrantzia duena: euskal ezkerren erakuntza, halegia; honetaz, fronte batetan ezkerren aukera ezberdin guztiak elkar daitezke taktikoki. Arazo honetarako, bere aldetik eta hola nahi badu behintzat, euskal sozialdemokrazia oraindik eratzeko dago, eta beronen problema sozialismoarena bezalakotsua da: egon, ba dago, baina politikaz eratzeke.

Ezkerren erakuntzan, alde batetik, sozialismo eta komunismoaren arteko urruntze —(alde elkartzepuntuak, nondik begiratzen den)— argitan jarri beharko lirateke, bai eta komunismo eta ezkerismoaren artekoak ere. Gure ikuspuntutik, bestalde, dogmatismorik gabeko komunismoak berak ere euskal sozialismoaren barruan moldatu beharko luke.

J.H. Aske

## “preso politikoaren egoera”

### dosierraren laburpena

Mahai inguru baten, bidez Hego Euskal Herriko “Pro Amnistia” elkarteek gure presoaren egoera larria ezagutu arazi nahi izan dute. Juan Carlos erregeari idatzitako eta bidalitako gutun luze eta mamitsu bat ere agertu digute.

Erantzuna heltzen dan bitartean, horra hemen gutun honen hitzak eta “dossier” luze horren laburpena.

Frankoren eriotza ondoren guztiz gogortu da giltzaperratuak Estatu barruko presotegietan egiten duten bizitza. Segoviako ihes egite ondoren, batez ere, kartzelarako zuzendaritzaren joera guztiz gogortu da berez terrorista eta zapaltzaile den kartzel-sistema barruan.

Betiko zailtasun eta gogorkeriak bestalde (komunikazio zailtasunak, presoaren sakabanatzea, presotegi barruko bizitzaren gogorkizuna, kartzelarako zuzendariekin ezin elkar-emanak izatea, ez zuzenki ez idatzi bidez) gaur egun urrengo lerroetara ekartzen ditugun zailtasunak gaineratu dira.

#### EGINTZAK

1.-- Sistemakikoki presoak sakabanatzea: banatze hau ez da juzgatutak izan direnekin bakarrik egiten, baizik eta “preventivo” egoera barruan daudenean ere. Ezer formalki begiratu gabe preso haur Estatu guztiko kartzelak eramanak izan dira (Zamora, Ocaña, Teruel, Valenciara...)

Batzutan, politiko egite batengatik, preso batzuen egoera gero eta larriago egin da. Naiz eta berak ezer egin Justo Ajusteraren sendagile Valenciara eramana izan da, hirurhun eta hirurogeitz bederatziz medikuk idazlan batetan Justok sufritutako torturak salatzeagatik.

2.-- Famili ikusketak ere zailagoak egin dira. Ehunka edo millaka kilometro egin ondoren, familiak beren presoari egindako ikusketak (hogei minutukoak gehienak) laburtuak izaten dira. Beste batzutan kartzelarako ertzainek zailagoak egiten dituzte. Ikusketa hauetan ezin da euskara erabili, naiz eta familetako batzuk euskara bakarrik ez ezagutu.

3.-- “Arrunta” edo komun presoak politikoak baino abantail gehiago ezagutzen dituzte.

4.-- Presondegiarako zuzendaritzak ez dute inoiz ere politikoak egiten duten eskakizunak erantzuten. Preso politikoak, horrela, ezin dute beren burua defenditu.

5.-- Beharrezkoak ez diran ikerketaz, presoaren gaitasuna maiz zapalduta izaten da.

6.-- Espetxe gehienetan ematen dan bazkaria oso eskasoa eta txarra da.

7.-- “Zigor gela” edozein uxakeriagatik askotan erabiltzen da. “Zigor gela” hoietan presoak egoten diran epeak, gainera, luzean izaten dira.

8.-- Espetxe batzutan presoak hogeit hamar egunetan bere geletatik irte arazi gabe izaten dituzte, patiora ateratu gabe eta bere lagunekin ezin komunikatuz. Hau da, adibidez, Ocañan eta Burgosen gertatzen dana.



## OCAÑA

- Preso bakoitza bere gelatik atera gabe egunean hogeitabi edo hogeitabat ordu egoten da.
- Bazkaria bakoitzak bere gelan jaten du, jan-gelara joaterik ez baitago.
- Abogauekin harremanak oso zailak dira.
- Kontrolak eta ikerketak eguneroko gauzak dira.
- Preso politikoei ez zaie lan egiten uzten.
- Zuzendaritzak presoak idatzitako gutunak bereganatzen ditu.
- Famili ikusketak kontrolpean egiten dira. Euskara ezin da erabili eta presoak euskaraz hitzen bat esaten badu, gogorki zigortuta izaten da.
- "Arriba", "Marka", "Hola" eta "Ama" dira Ocañan sartzen diran egunkari eta aldizkari bakarrak. Hauk ere zentsuratutak egoten dira.
- Bere gelako leihotik begiratzeagatik Basañez "zigor gelan" sartuta izan zen.
- Baskal ondoren bere oihean etzarida egoteagatik, Atxagak zigor berbera ezagutu zuen.
- Telebista ikusten zegoela Ansoategik aize bat bota zuelako, "zigor-gelara" bidalita izan zen.

## BURGOS

- Neguan zero azpiko hotzak kalefakziorik gabe sufritzen dira, bustiro handi baten erdian.
- Kartzelako ertzain batek, preso eta honen famili erdian jarrita, hauen ikusketa kontrolatzen du.
- Presoei ez zaie sukaldea erabiltzen uzten, ez eta sukalde ttiki batetan beren janariak berotzen.
- Zuzendaritzak ez ditu presoak egindako eskakizunak erantzuten.
- Euskal presoei ez zaie iganderoko meza entzuten uzten.
- Mujika Arregik bi alaba ditu (hiru urtekoa bat, bost urtekoa bestea). Legez, preso baten alaba edo seme ttikiak presondegian sartu lezakete hiru ilabetero eta hau da Mujika Arregik eskatu duena. Naiz eta legez eskubide hau izan, Mujika Arregiren eskakizuna ez da entzuna izan.
- Jabier Ruiz Apodakak, errena ez gelditze arren, egunero soin-jardunak egin behar ditu bizikleta berezi batetan. Burgosko zuzendaritzak ez dio txirringa hau eman.
- "El Diario de Burgos" eta "ABC" dira hartzen diran egunkari bakarrak. Eta hauek, gainera, zentsuratutak.

## TERUEL

- Jose Ignacio Egaña, 18 urteko gaztea, da kartzel honetako preso politiko bakarra, naiz eta "preventivo" egoeran izan.
- Ez zaio ez egunkari ez aldizkaririk uzten.
- Bere amak euskaraz bakarrik egiten du eta, ala ere, ez zaio bere semeakin hitz egiten uzten.

## CARTAGENA

- Ihes egin zutenentzako erabaki zen zigorra hau izan zan: zigor-gelan, inkomukazio hutsean, larogei egun egon beharra.
- Ikerketak (cacheos) egunero egiten dira.
- Edozer eskatzeko "instanziak" egin behar dira. Baita ere kumunpapera eskatzeko.
- Janari gutti. Kanpotik janaria sartzea debekatuta dago.
- Presoak "uniforme" bat erabili behar dute.
- Abogatuuekin izaten diran harremanak kontrolpean egiten dira.

## BARCELONA (Emakume-kartzela)

- Carmen Iglesias dionez, abogatuakin hitz egin beharduen bakoitzean, emakume-ertzain batek preso erantzitzen du, beren jantzi guztiak ikertuaz. Hau preso beharrezko egiten da.
- Espetxe hauen zuzendariak zortzi "religiosas cruzadas" dira. Moja hauen zuzendaria "madre" Lequerica da, Pilar Careagaren loba, eta preso politikoen kontra duen grina izugarria da.
- Preso politikoak beste guztietik banatutak bizi dira.
- Askotan "moja" hauek kendutak izan daitezela eskatu dute presoak: nahiagoek dira "funcionariak".

## TERUEL

- Naiz eta "penitentiaria" izan (juzgatuak izan direnentzako bakarrik) eta ez "preventivo" egoeran dagoenentzat, preso politiko bat espetxe hontan ere ba dago.
- "Arrunta" edo preso "komunak" politiko bakarrari "asesino", "terrorista" "criminal" eta horrelako hitzez oihu egiten diote, erzainen baimenez.
- Politiko preso bakar hau Terueleko presondegi honetara "goitik etorritako agindu berezi" batengatik heldu zan.
- Espetxe honetara iritxi bezain laister ilabete osoko "inkomunikazio" zigorra ezagutu zuen preso politiko honek.
- Ilabete hontan ez zuen izan familiaren berririk, Lanaren gogortasunak gazte honen indarrak hustu zituen (17 urte ditu).
- Goizero ordu beteko "doktrina" klasera joan behar du, ume bat bezelaxe 4kristau-ikasbide" buruz ikastera.
- Arratsaldero patioan hiru ordu egoten da.
- Heltzen zaion aldizkari bakarra "Redención" izenekoa da.
- Telebista larunbata eta igandean bakarrik ikus dezake, naiz eta "Telediario" eta "Servicios informativos" ez ikusi.
- Ikusketetan ezin du euskaraz hitzegin, naiz eta bere amak ez gaztelaniaz jakin.
- Ez zaio lan egiten uzten. "Comun" presoak egunean zortzi ordu lan egiten dute, bai tallerretan, bai lurgintzetan eta horrela hiru mila pezeta irabazten dute ilero.
- Kontrolak oso gogorrak dira.

## "PRO AMNISTIA" K JUAN CARLOSERI BIDALITAKO GUTUNA

ESPAINIAKO ERREGE MAJESTATE HORRI

Sinatzaileek, Euskal Herriko Amnistia aldeko Elkarteen Komisio Ekintzaileak osatzen dituztenek eta bertan erroteriko erakundeen ordezkariak, ondorengoaz azaldu beharrean aurkitzen direla esaten dute:

1.— Franco Jeneralaren gobernaldian, ia berrogei urtez, Euskadi, herrigaitz zigortzaile baten lekuko mindua dela: arrazoi politikoz egindako gelarazpenetan eman den tortura. Gaur egun, terrorismoaren aurkako lege ezarketak sakaratzen duen 10 egunetako luzapenaren babesean ezartzen diren torturak —laztasun eta gogortasun ohi ezkodunak— zientzi-azko metodoen bidez ezartzen dira, fisikoki eta psikikoki hondatzen duten teknikez eta instrumentuez.

2.— Gelaraziek jasaten ohi dituzten torturak ondorengok dira:

a) Makilaldiak eta kolpeak, instrumentu bereziz, makilaz, bergaz, kulataz, esku zapi bustiz, baraxoz, etabarrez; gelarazien gorputzak hematoma huts bihurtuz. Egunkarrietan eta astekarrietan, agertu den Anparo Arangoarena da kasurik adierazleena, bakarra eta larriena izan ez bada ere.

b) Bainerako torturak, gelaraziaren burua kaka urez beteriko bainera batetan sartzen datzanak, haren asfisia bilatzen du eta hari zorabio eta konort galtze ugari eskaintze dio, eta bata bestearen atzean.

c) Logalez, gosez eta egokera desjasangarritan edukitzea ordu luzetan.

d) Tortura moeta berri eta, tamalez, famatuaren agerpena: Elektra korronteak. Birsort aparailuetan edo gorputzeko alde sentiberetan jartzen dira elektrodoak.

e) Ordu batzutat zintzilikatzea, buruz behera gehienetan, aldi berean kolpatuz.

f) Galdaketa desohoregarriak eta izorratzaileak egiten zaizkie emakume gelaraziei, bilutsik galdatuz.

3.— Herriarekiko eraginari dagokionean, aurreko bi puntuak astuntzera gelarazpenen gehitzea dator, jadanik guztiekikoak eta diskriminagabeak baitira. Sarritan, honela gelarazitako pertsonak ez dira Lege Agintariarengana aurkeztuak izaten, edo bero-

nek aske uzten ditu, ez baitute hauzitan sartzeko lege arrazoirik izaten.

Egoera honetan, ba dirudi gelarazpenek ez dutela errurik bilatzen, terrore giro diskriminagabe bat sortzea baizik.

4.— Polizi kontrolen gehitze ohi ezkoa, harmak dispartzeko prest dituztela beti, zenbait herritarren bizia eraman dute jadanik.

Kultur saioak direla, erlijio saioak etab. direla, Bortxa Publikoa gerlarako ekipamenduz agertzean gure hiriak eta herriak hesipetuz, hein handi batetan

5.— Eskuin puntako taldeen ekintza erru gabeen gehitzea:

Bonbak dendetan, haietariko batzu zeharo suntsituz, denden fatxada eta erakuslehoietara tiroak jaurtikiz. Zemaizko eta intsultozko pintaketak herri guztietan. Zemaizko eta sinatu gabeko mezuak telefonoz eta postaz. Eta azkenez, Pellejero eta Anianoren hilketak Mendijurren.

6.— Puntu guztiok, lege aldetiko segurtasun gabeziak giro bat osatzen badute ere, Espainiako Estatuaren ordezkarien hitzeko garantiaz eta paper guztiak dituztela datozen exiliatuek duten desgarantia datorkigu giro hori larritzera.

7.— Preso politikoeak jasaten duten hurrupaketaren gordintzea:

Estatuko espetxe desberdinetan banatzea: Puerto de Santa María-ren, Cáceres-en, Cartagena-n, etb., familiartekoen ikustaldiak eta juridik laguntza beharrezkoa zailduz, zigor zeldak eta errekurtsorik gabe egotea, preso arrunten aldean hartzen duten tratu diskriminagabea, familiartekoekiko elkar hizketak beti entzunak izatea, euskararen galeraztea gurasoek beste hizkuntzarik ez jakin arren, aldiakariak eza edo haien zensura, zigorrak eta arakaketa eten gabeak, eta, azkenez, aldizkako edo baldintzazko askatzearen sistemazko ukatzea.

Aipaturiko faktoreek herriaren iraun ezinezko egoera hau lurreratzen dute apurka-apurka. Egoera hau askabide demokratiko gabeziak janzen du. Era berean, politikazko eta sozial libertateen ezak eta euskal nazional problematiko batek ere bai. Eta problematika honi jaramon egiteak eta eabazpide bat emateak dira herriak bere barruan sentitzen dituen eskabideak.

Amnistia oso bat, salbuespenik gabea, politikazko erruz atxiloturik edo exiliaturik aurkitzen diren guztientzat, oraingo legeak terrorista gisa salatzen dituztenak ere bai. Horixe da lehen eta nahitaezko aurrejarpena arazo horien ebatzia eta ondorengo herriaren bakeztatzea etor dadin.

Euskal Herrian, mila, bederatzirehun eta hirurogeitamaiseko ekainaren bostean.



# "Vascongadismo"aren dialektika

"Vascongadismoa" dugu euskaldunok gure etsairik sofistikatuen.

"Vascongadismo" horren defendatzaile ditugu gure inguruan telebista, gure herriko zenbait irrati, gobernariaren aginduak, Eliza beraren mentalitate, eta batik bat zenbait alderdi politikoen jokoerak.

Gure "Gaceta del Norte"rentzat, edo eta "La Voz de España"rentzat ez dago Euskal Herri bat "Región del Norte" baino, Santander eta Burgos barnean direlarik. Erregio horrek betiro "Vascongadas"aren inguruan jokabide desbatutzailea darama gure interes nazionalerako.

Bere erro historikoan erabili ez behar diren argudioak gaurkotzen ditu aurreritzi gainnazional batzu espainiar xovinismoaren arauerara moldatzeko. Guk galdetzen dugu joku hau zergatik egiten den bereziki Euskal Herriarekin. Beraz beti Kataluniaren kontzeptupean lau probintziak onhartu ohi dituzte; berdin Galiziar dagokiolarik. Hemen ordea R.T.V.E.-n eta bertako irratien ahotan "Región del Norte"z mintzatzen dira, edo eta "Vascongadas y Navarra"-ren aspaldiko nomenklaturaz. "Vascongadismo" desbatutzaile horren agiri nagusia "Régimen administrativo para Guipúzcoa y Vizcaya" delako erakundea dugu. Erakunde hori bere barren asmotan Euskal Herri nazional baten planteamendurik negatiboena da: "vascongadismoa" bere adierazpen urri ta eskasenetara doa. Araba Nafarroarekin bat euskal elkartetik baztertuz.

**"REGION VASCOCASTELLANA ORIENTAL".**

"Vascongadismoa" gure herriaren historikoak areagotu ta handiagotu nahi ditu, batasunaren indarra ahulduz. Beraz ez dugu Madril-entzat Euskal Herri-rik militarki (Burgos), ez unibertsitalki (Valladolid), ez elizaz (Burgos). Zergatik horrelako politika desbateratzailea? Konturatu al gora horrelakorik ez dela ez Galizian, ez eta Katalunian ere? Argian Fraga Iribarne ministro jaunak erantzungo digu garbiki.

Fraga jaunak orain bi urte eginko erregio planteamenduan Euskal Herria ez zen "Vascongadas y Navarra". Euskaldunok ginen "Región vascoastellana oriental" llots, Fragarentzat ez dugu nortasun berezi baten sustrairik, Gaztelarekin lotuz baino. Besteak zer? Galiziak bai ba du, baita Kataluniak berea, baina gure nortasuna aski ez delarik Gaztelarekin lotzen gaitu. Ba liteke horren arrazoiak kulturalak izatea Fraga jaunarentzat, agian, kultur patrimonioan finkatu nahi badu gure loturen erroa, nola konprenitzen da gobernuaren jokabide diglosikoa euskareretik? "Vascongadismo" ofizial hau bitxikeria bat da, halako aurreritzi politikoez nahasia...

**"PAIS VASCO Y NAVARRA"**

"Vascongadismo" horren atxakia historikoak aztertzen badiugu, ofizial mailatan erantzuna erraza da. Baina zer esan etxe barruko planteamenduetan eta oposizioan ere "vascongadismoa" ez baldin bada gaintzen? Europa guztiak ba daki euskal izatearen identitate funtsak non dauden, eta nortzuk osatzen duten identitate hori... "Cambio16" eta "Cuadernos para el dialogo" ostekariak, ordea, ez dira horretaz enteratu. Horra hor "Pais Vasco y Navarra" azken zenbakietan...

Politikan eta politikagintzan gaur egun "vascongadismoa" onhartzea administralgo zapaltzaile honen joku alogiko ta anti-historikoari segitzea da. Gaur

ezin daiteke inor Euskal Herriaren erremiditzaile bezala aurkeztu, baldin eta estadio hori ez badu nolabaitean gaintzen. "Vascongadas" eta "Nafarroaren" herezketa ez dira onhargarri has-tapen ta identitate mailan; administralgo ta teknika mailan bakarrik onhar daiteke berezkuntza bat. Teknikak beti diskutigarriak dira eta aldagarriak. Estatutuen problematika honela bideratu behar da, hau da teknika mailan, ez euskal identitate mailan. Nafarroaren nortasun zientifikoa historikoki Euskal Herrian sartzea ukazina da.

Adierazitako "Regimen administrativo" hori erro-errotik "vascongadismo"azientifiko batetan ari da lanean. Ez gaitu harritzen batere, guk "región vascoastellana" delakoa osatzen dugula ministro jaunaren lumatik jakitean...

Gure kontraesanak dialektikoki gaintitu behar ditugu. Gaintidura hori gure jokabideetan dago. Galde iezaiozue Telebistako "Telenorte" programari zein geran, ez dakite, ba dakite..., agian gehiegi dakite? Gu "Cantabrico Oriental" gara...Bapo. Kontraesanak gaintitu geografiaren legez, baina azalez eta asmo txarrez.

Lehen esan dudana bezala gure komunikabideen barren kontraesan azientifiko guzti hauek lehenbailehen sahatu behar ditugu.

Luis Mari MUJICA

## a.t.s. en arazoa hemen

Bizkaiko profesional talde batek, mediku, arkitekto, apareilari, ingeniari, abokatu, ekonomilari, irakasle, albaitari, industrial, empletatu, eta beste, A.T.S.-en problemaz, beren ikastetan geroaz, eta beren lanaz biziki kezkatuak, eta herriaren onerako beraien lanak duen garrantzi sakonaz oharturik, honako deklarazio hau egitea erabaki dugu.

1.— Euskal Herriko A.T.S.-ek egindako eskabideekin bat egiten garela adieraztea. Eskabide horietan, inportanteenak bezala honako hauek direlarik:

- Formazio oso eta erresponsable bat.
- Unibertsital eskolak sorterazea.
- A.T.S.-ko irakaslego berezi eta ordaindu bat sorterazea.
- Era guztietako osasun babesa.
- Eskola egutegia aplikatzea.
- Ekintza independenteetako Departamentu autonomo bat sorterazea.
- Ikasketak planetan eta gobernu lanetan ikasleek ere maila berdinean parte hartzea.
- Especialitate gehiago jartzea.
- Erizainen, emaginen eta praktikanteen kolegioak bat egitea Erizain Kolegio bakar batetan.
- Orain arte A.T.S.-ko Ikasketak deritzanak. "Erizantz Zientziak" deitzea.

2.— Gainera, beharrezko iruditzen zaigu, Euskal He-

rriari Erizainen arazoa benetan konpontzen laguntzeko:

- Erizain ikasketak Euskal Unibertsitatearen barnean sartzea. Beharrian hau guztiz zabaldua dugu Euskal Herria osoan.
- Erizainen Euskal Kolegio bat sorterazea, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, eta Nafarroa barruan hartzen dituelarik.
- Medikuntzan elebitasuna ezartzea, lehen pauso bezala, nekazal arloan sarturik. Euskal Herriko gaixo guztiek izan dezatela, horrela nahi izanen gero, erizain euskaldun baten laguntza beren ohe ondoan.
- Hego Euskal Herri mailan (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan) erakunde planifikatzaile bat sorterazea, osasunarekin zerikusirik duten ekintza guztiak aztertzeko, planifikatzeko eta koordinatzeko.
- Erizantz Ikasketan barruan euskara beharrezko ikasgaitzat, jartzea Euskal Herri osoan.

Agiri hau euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta komunikabideetara eman izan da bi hizkuntzotan argitaratu dezaten.

Bilbon, 1976.eko Ekainean, bere izenean eta aipaturiko profesionalenean.

## denda-langileen burruka

"Asteko atsedenik ez. Larunbata dugu geure helburua!"

Honela dio dendetako langileek atera berria duten eranskailuak. Orain dela hiru hilabeteetatik duzu hasia burruka hau, nahiz eta urte askotako asmoa izan orain lortu nahi den xedea.

Zuzenean dagoen problema hau dugu. Jantzi eta oinetako dendetako langileek edo saltzaileek aste bitartean egun erdiko oporraldia dute. Jakina, oporraldi hau larunbat arratsaldekoaren ordezkia da. Eta, larunbat arratsaldekoa da, hain zuzen, lortu nahi dutena langile hauek. Aste bitartean duten egun erdiko oporraldiaren eguna, eta goiza zein arratsaldea izango den ere, dendariak inposatzen diete. Gainera, larunbat arratsaldeetan ordu erdi bat gehiago lan eragiten diete —zortzi eta erdiak arte—, eta gehigarri hau ez zaie ordaintzen.

Legeak zer dioten? Merkatalgo legeak, udako hiru hilabeteetako —uztaila, agorrila, eta iraila—, larunbat arra-

tsaldeak errespetatu erazten ditu, oporra eginez. Bestalde, hau ere ba dio legeak: astean hogeita hamasei ordu segidako oporraldia eman behar dutela dendariak beren langileentzat. Baina, ez dio igande aurretik ala igande ondoren egin behar den. Beraz, bi interpretazio daude: bata, bidezkoena, larunbat arratsaldea hartzen duena; eta bestea, astelehen edo beste egunen bat hartzen duena. Praktikan, indar haundiagoa duelako, bigarren aukera honek agintzen du, indartsuena baita. "Cortes Ingles"ek larunbat arratsaldeetan zabaldu egiten du, eta horrela nahi du. Bistan dago zer gertatuko litzatekeen beste denda guztiek itxiko balute. Horrela, bada, konkurrentzia lotsagarri eta desleial honengatik, beste denda guztiak, zabalzera behartuak aurkitzen dira larunbat arratsaldeetan, nahiz eta ados ez egon.

Sindikatuak, "Corte Ingles"en jokabideari jarraitzen zaizkio, eta ez langileriaren eskubideari. Hau du langi-

leak bere galera. "Cortes Ingles"ek, langile asko eta diru anitz duelako iraunderik ezake aste osoan egun erdi bat ere itxi gabe. Baina, denda ttikiak ez.

Burruka honetan, batez ere, jantzi eta oinetako dendetako langileak dabilta. Barakaldo, Santurtzi, Bilbo eta Parte Zaharra, eta kasik eskualde osoko dendetako langileak batu dira.

Pauso batzu ere eman dira burruka honetan. "Corte Ingles"en aurrean eta Sindikatuaren aurrean manifestazioak egin dituzte, nahiz eta polizia sakabanatu egin gero. Batzarreetan dabilta, eta ezertan ere jaramonik egiten ezpazaien, grebara jotzeko asmorik ba dute.

Denda-langileen alde gaude, eta ez giza zapaltzaile huts bat den kapitalismaren alde. "Cortes Ingles"en jokabidea, kapitalismoak gure herriko langileria nola zapaltzen duen seinale bat gehiago dugu. Ez gaituzte aberatskatuko.

Pello Urbizu.



# BURUZKO EUSKARARI AGERIA

## GAURKO EGOERA.

1.1.—Euskal Herria, beronen kulturaren sustaia eta komunikabiderako tresna Euskara delarik, Euskararen bidezko oinordekoa eta erabiltzailea da

1.2.—Euskal Herriko bizilagun guztiek bizitzaren arlo guztietan Euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubidea dute.

1.3.—Euskal Herrian, baina, euskaldunek ez dute Euskara erabiltzeko erraztasunik, ez eta erdal-dunek Euskara ikasteko ere.

1.4.—Espainiako eta Frantziako Estatuak Gaztelaniari eta Frantsesari emandako goitibeherako ofizialtasuna, Euskara galtzeko faktorerik eragingarrietako bat izan da.

1.5.—Gaztelaniaren eta Frantsesaren faborezko ofizialtasun horrek hizkuntza hauen egoera menperatzailea irauten du, Diglosia ekarriz.

1.6.—Diglosia, gizatalde edo nazio batek beste talde bati bere hizkuntza ofizialki gainjartzea da.

1.7.—Espainiako Estatuari dagokionez, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan gaztelaniari emandako faborezko tratua Diglosia sortertzen eta pizten du, bi hizkuntza talde bereiztuz, bata bestearen menpean.

1.8.—Beraz, Diglosia horrek, alde batetik bai Herriari bai gizabanakoari beraien hizkuntzaz baliatzeko eskubidea kentzen die.

Bestetik, hizkuntza ofizialez beste hizkuntza kulturadun herritarrari, zergaemaile den aldetik, bere kulturaz eta hizkuntzaz adierazteko duen eskubidea kentzen zaio.

Are gehiago, berak ordainduriko diruaz beronen hizkuntza eta kultura zapaltzen dituen Estatuaren egitura zaintzen da.

1.9.—Areago oraindik, alde batekokeriaz (hots, herriari kontsultatzeke) gaztelaniari emandako ofizialtasun horrek, bortxakeria denez gero, indarkeria dakar, gure kondairak erakusten digunez.

1.10.—Euskal Herria, ordea, bere Hizkuntza eta Nortasuna hil zorian ikusirik, ahal izan den bezala erantzuten saiatu da, Ikastolen, Alfabetatze kanpainen eta kultur berriztatzearen bidez.

1.11.—Euskal Herriko etorkinek, behin baino gehiagotan, horretarako egindako inkesten bidez, bertorakotzeko nahia agerterazi dute.

## POLITIKA OFIZIALA.

Gobernuak berak, hestualdi batetan ("Estado de Excepción" delakoan) eta Administrazio baren ofizial ez zen hizkuntza bat eramateko saioek

zirauteino (Barcelonako Udaletxearen arazo) herri mugimendu horren kontrola eskuratzeko, hizkuntza ezofizialekiko jarrera mugatu du:

2.1.— Urriaren 31ko 2929/75 DEKRETUA:

Gobernuak Euskal Herriari Euskaraz hitz egiteko baimena ematen dio; Euskeraz hitz egitea non eta noiz datekeen zilegi azalduz.

Gaztelaniaren ofizialtasun bakarra indartzean, lehen mailako eta bigarren mailako hizkuntzak bereizten ditu.

—Lehen mailako hizkuntzari (gaztelaniari) edozertarako gaitasuna ematen zaio honela.

—Bigarren mailakoa (Euskara) hala-hala mugaturiko helburu "kultural" batzutarantz heldzen da eta besterik ez.

Hizkuntza "vernacula" bat ez ezagutzeagatik ezin daitekeela espainiarrik diskrimina ezartzean, Euskara eta Euskaldunak diskriminatzen ditu, erdaren faborez.

2.2.—Hizkuntza Legeak bere 14 eta 17. artikuluetan agintzen duenari begira, Epailaren 30eko 1433/75 DEKRETUA emana da.

Dekretu honen arauera, Euskararen irakaspenera euskaldun haurren erdararako bide bat besterik ez da, beraz (gaztelania) hizkuntza ofiziala eta nazionala izanki (bigarren art).

Euskararen irakaspenera haurtzarorako uzten du, soilki, EGB-ra eta Aitzin-eskolara mugaturik.

Normaltasunetik kanpokotzat jotzen du Euskara, zeren irakaskuntza ekintza normalen gainean ez baitu eraginik eduki behar.

a) bai eskolen aldetik bai ikasleen aldetik aukerakoa denez gero, ez zaio Euskarari asignatura izararik ematen (1.art.)

b) Irakaskuntza honen dohaintasuna ez da lege honen arauera jartzen, ez eta eskolorduetan lekuri ematen.

c) Beraz, Euskarari emandako statusa edozein atzerritar hizkuntzarena baino eskasagoa da.

d) Azkenez, lege horretan ez zaio irakasleentz gertatzeari kasurik egiten.

2.3.— 1976.eko Urtarrilaren 20an Ministergoak emandako AGINDUA.

Delako "Orden Ministerial" honen arauera eta aipaturiko esperimendu gisako neurriak praktikara eramateko, Elebitasunerako batzorde probintzialak sortu dira.

Bizkaikoa, hain zuzen, Euskara eta beronen problematika ezagutzen ez dituzten lagunez eratuta dago. Gainera, ez du Euskaltzaindia haintzakotzat hartzen.

# EUSKAL HERRIAN

## GURE AUKERA

Euskal Herriak bere hizkuntza adierazpen-komunikabiderako tresna bezala erabiltzeko berreskura dezan, ELEBITASUNA lehenbiziko pausotzat jotzen dugu.

3.1— Araban, Bizkaian, Giputzkoan, Nafarroan, Elebitasunak hauk eskatuko lituzke:

- a) aipatu ditugun dekretuen deuseztatzea.
- b) Probintzia horietako bizilagun guztiek, horretarako behar diren bidez, Euskara Erdara bezain ondo ikasteko duten eskubidea.
- c) Bizitzaren arlo guztietan hizkuntza haez baliatzeko era.

3.2— Horretarako nahitanahiezko baldintzak:

- 1) Euskararen Administrazioarako ofizialtasuna Euskal Herriko eremu osoan. Hots, Agintari publikoen eta gizabanakoaren arteko harremanetarako izan dadila. Halaber, Administrazioaren erakunde eta enplegatu guztiek Euskara erabili ahal izateko beharra eduki dezatela, herritarrek hala eskatzean.
- 2) Komunikabideetan (Irratian, Telebistan, Aldizkarietan) tratu berdintasuna ematea.
- 3) Ofizialtasuna Hezkuntzan ere. Hau da, he-

rritar oro hizkuntza bien ezagutza orokorraino hel dadila; eta haur bakoitzak gurasoek aukeratu hizkuntzaz bere ikasketak egiteko era eduki dezala.

Honi begira, hona hemen beharrezkotzat jotzen ditugun lehen urratsak:

- a) 1976/1977 ikasturtetik hasita, Euskararen nahitanahiezko irakaspema maila eta ikastetxe guztietan, bidea errazteko, geroago irakaspenak euskaraz emanak izan daitezen.
- b) Euskaldun haurrei Euskaraz irakts dakiela, erdararen sartzea biguntzeko.
- c) Honek guztionek zera eskatzen du: euskaldun maisuen banaketa errazionala egitea, maisuen toki aldatzearen problemari soluziobide bat ematea, eta horien prestaketarako behar diren neurriak hartzea.
- d) Euskara eta Euskal Kulturaren asignaturak jartzea eta hori Magistergo Eskolan ezezik, Irakaskuntzaz arduratzen diren Ikastetxe eta Fakultate guztietan ere.
- e) Ikastolaren ofizialtasuna ezagutzea eta haie diru laguntza ematea, dohainik izan daitezen.
- f) Euskal Unibertsitatea sortzea.
- g) Euskaltzaindiari laguntza osoa ematea.

Agiri honen izenpetzaileak Bizkaiko Profesional Elkarte eta Hauzo Elkarte asko dira. Beren izenak gu-

re urrengo alean argitaratuko ditugu. "Anaitasuna" izenpetzaile hauetako bat da.



**ESKU  
LANETARAKO  
GAIAK**

*DOCTOR AREILZA, 55  
Telf. 431 72 93  
BILBAO - 10*





# Ingeniariak eta euskara



Bizkaiko industrial ingeniariak beren Kolegio Profesionalaren inguruan bildurik daude. Ba dakigu politika aldetik; eta bertan hartzen diren erabaki batzuk, oihartzun zuzen eta ozena dutela, beste Kolegioetan lehenik, Erakunde ofizialetan ondoren eta gizarte osoan azkenik.

Horregatik, eta euskal arazoei buruzko jarretan eduki dezakeen eraginagatik dakargu ondoko berri labur hau guztien gogoetarako.

Aipatu Kolegioaren Zuzendaritz Batzordearen azken batzarreerako batetan, Bilboko Industrial Ingeniarien Kolegio Ofizialean eta Elkartean elebitasuna onhartzea erabaki izan da, oraintsu Arkitektoen Kolegioak harturiko bideari jarraikiz Medikuen Kolegioa ere horretan ari dela entzun dugu.


Eta erabaki hori hitz hutsetan gera ez dadin, elebitasunerako batzorde bat osotzen ari dira. Bide onetik dakigunez, batzorde horren inguruan ingeniari euskaldun asko biltzen ari da, teknika gauzetan euskara sartzeko eta teknika euskaraz lantzeko asmoz. Hasteko, Kolegioko aldizkarian euskaraz argitaratuko dituzte beren artikuluak.

Eutsiko ahal diote bere ahalegin horri, eta beren helburua lortuko ahal dute!

Ramon Garai.

## Argia ezinbestekoa den tokian,

# SAFT-URA bat ezar. Berezko argia du.



URA B-30



URA LR-206



URA GENELUX-3000

Jantoki, iraganbide, ikasgela, botikin, zaingela, eskailera, logela eta antzekoetan,

SAFT-URA emergentzi argigailuek beren segurtasuna eskaintzen dizute. .

SAFT-URA-k pilagun argigailutan aukerarik ugariena dauka: aldizkakoak, semaforoak etab...

# SAFT

IBERICA, S. A. Artapadura, 11 - Tfnoa. 26 17 00 - Gasteiz



## LEJOA: ARTZAINA KANPORA BIHOA

Ekainaren hiruan, zenbait aldizkari eta irratitako ordezkariak deituak izan ginen pentsaurreko elkar hizketa batetara. Bertara Lejoako Zientzi Fakultateko zenbait irakasle eznumerarik eta ikasleek gonbidatu gintuzten. Elkar hizketa horretan, Zientzi Fakultateko Batzarreak Bilboko Unibertsitateko Errektorea den Justo Pastor Ruperez jaunaren dimisioa eskatua zuela jakin erazi ziguten, berri hori zabal genezala erregutuz.

Dimisio hori Errektorearen gidaritza moduarekiko desakordian finkatzen da. Zientzi Fakultateko ikasle eta irakasleen eritziz, Errektore jaunak ez du modu egokiegiz eraman Unibertsitatearen gestioa, eta hori egiaztatzeko, sei horrialde dituen dossier bat prestatu ukan dute. Eta ongi informaturik egon gintezen, dossier horren kopia bana eman ziguten, prentsaurreko elkar hizketara joan ginenoi.

Dossier horretan bat multzotan daude bildurik Pastor-en aurkako keak:

- A) Unibertsitatearen gestio ekonomikoari buruzkoak.
- B) Ministergo aurreko gestioari buruzkoak.
- C) Bizkaiko agintariekiko gestioari buruzkoak
- D) Errektoreak informabideei zabaldu dien informazioari buruzkoak.
- E) Unibertsital kideekiko gestioari buruzkoak

Multzo bakoitzean, banan banan eta numeraturik adierazten dira Errektore jaunaren egintza desafortunatuak. Antza denez, ikasle-irakasleek haserre egoteko arrazoi franko ba dukete.

Baina haserrea disparatu duen egintza, Fakultateko Dekano berriaren hautapenean gertatu dena bide da. Aurreko Dekanoak bere dimisioa aurkeztu eta goi agintariek dimisio hori onhartu ondoren, Fakultateko Batzarreak bide demokratiko batez aukeratu ukan du martxoan bertarako Dekano berria. Baina berau ofizialki izendatua izan zedin, Errektore jaunak hiru izen bidali behar zituen Madrilerara, Ministergokoek berorien arteko bat izenda zezaten. Izenekin batera, bakoitzari buruzko txostentxo bat bidali behar zuketean. Dena dela, eta nahiz eta Errektore jaunak "El Correo Español"-en agerturiko elkar hizketa batetan (1976-III-26) hiru

pertsona horien izena bidalia zuela esan zuten, oraindik blokeaturik ditu izenok Bilbon, Madrilerara bidali gabe.

Gauzak horrela, ez da harritzekoa, Zientzi Fakultateko azken Batzarrean (1976-IV-9; 1976-IV-28 eta 1976-V-4 egunetan ospatua) gehiengo izugarri batez errektorearen dimisioa eskatua izatea

### GERO ZER GERTATU DEN.

Dimisio-eskaria aurrera eroateko, bi irakasle numerari, bi irakasle eznumerari eta bi ikasle oso-turiko batzorde bat antolatu zen Batzarrean bertan Batzorde honetakoek Unibertsitateetako Zuzendari Generalarengana joan behar zuten lehenik, Batzarrearen erabakiaren berri ematera. Gero Errektorengana joan behar zuten gauza bera egitera. Eta azkenik, informabideetara.

Hilabete osoan, bata dela edo bestea dela, ez zaie posible izan Zuzendari Generalarekin audientzia lortzea. Bitartean, Zientzi Fakultateko agintariek pasiboki haurte dute arazoa, Batzarrean hartutako erabakia inoperantea geratzen zela ikusi arren.

Horregatik, besterik ezean, irakasle eznumerarien ordezkariak beharrezkoa ikusi ukan dute, arazoa publikoki airatzea. Eta honetara heldu dira.

Arazo honetan, beste gauza batzuren artean, ikasle-irakasleek Errektorea demokratikoki aukeratu izan behar dela dakusate argiroki. Hauxe daiteteke, orain gauden zulotik irteteko bide bakarra. Ea, bada, horrelakorik laster ikusten dugun.

J.R. Bilbao.



# ESKOLA PRIBATUETAN EUSKARAK JAI

Denok dakigunez eskola pribatuetako komenioa dela eta zenbait istilu eta agiri ateratzen ari dira.

Hauen artean aztegarria da F.E.R.E.-aren batzordeak idatzitako bat, eskola pribatuetako gurasoengana zuzendaritzaren bitartez bidaltzeko. Bertan sozial aldekoekin izandako harreman konkretu eta zein egunetan izan diren agertzen da. Baina alde hori utzirik, nere ustez oso zabala eta aurreratzailer agertzen da idazki guztia.

*Bakarrik puntu bat, konpresan bat nere ustez, hemen aztertuta nahiko nuke.*

*Bostgarren eta seigarren artikuluetan honela dio:*

5.- Propugnamos dentro de una sociedad democrática y socialista, la libertad de elección para la educación de sus hijos por parte de los padres, así como la libertad de creación de centros educativos con una ideología definida y clara, de acuerdo con las exigencias familiares y sociales.

6.- Rechazamos cualquier tipo de estatificación en la enseñanza y en la educación que lleve consigo cualquier imposición de dictadura intelectual uniforme para todos los ciudadanos. Por el

contrario somos partidarios de una socialización de la enseñanza que ofrezca a todos los ciudadanos la posibilidad de una educación conforme a su ideología propia.

*Pentsatzen dut bostgarren artikuluan aipatutako gizar-tearen exigentziak, seigarren artikuluan esandako, horren aurka egon daitekeela. Halegia, askotan gizar-tearen exigentziak norberaren ideologiaren aurka, egoten dira. Batez ere ideologia horik berrogei urtetan erabateko alderdikeriaz landuak izan badira. Fun-tsean agresibitate batetan hezita izandako bati, nola eman dakioke, askatasunaren izenean, eskubidea bere gustuko instituzioak sortzeko?.*

*Eta niri axola zaidan euskararen arloan, berrogei urtetan gure herriko hizkuntzaren alde lan egin gabe, egondakoe, edo gure hizkuntza deusezteko jokabide batzu onhartu dituztenek, nola eska dezakete orain bakoitzak nahi duena egitea? Hizkuntza ia heriotzara eraman duenak, askatasunaren legean jokatu behar du, ala hizkuntza hori lantzeko beharturik egon beharko du?.*

*Pentsatzen dut pertsona horiek gure herriari izugarritzko zor bat diotela. Egindako kaltea konpontzeko, euskara birbiztuteko lan egin beharko dutela uste dut.*

Agustin Ozamiz.



Zure astia erosotasunez emateko

## MARSANSekin bidaiatzea hobeki bidaiatzea da

Guztioi ukan dugu inoiz inguratzen gaituen munduari hurbiltzeko gogoia, jende eta gauzak ezagutzeko, mirari berriez gozatzeko nahia. Lehen, hau amets huts bat besterik ez zen, bidaiak neketsu, zail eta garestiak izan zirelako.

- Hasteko, ibilbidea mar katu beharra zegoen.
- Gero ibilgailua aukeratu... eta txartelak lortzea.
- Buruhauste gehiago oraindik: egoteko etxe bat non aurkitu?.
- Batzutan automobil bat alokatu behar izaten zen...
- Bidaia, gainera, lanagatikoa baldin bazen, eragozpen handiagoak sortzen ziren.
- Ondo pasatzeko tokiak, bestalde, non daude? Eta nola dabil diru trukea?.

Orain, ordea, honelako problemarik ez dago, zuretzat behintzat. Urte askotan zehar lortu dugun esperientziak eragozpen guztioi kentzen dizkizu.

Zure ametsak, orain, hurbilago daude. Hasiera hasieratik haiez goza dezakezu, Marsans-ek, aldiz, zuretzat lan egiten duen bitartean. Gure esperientziak, gainera, dohainik balia zaitezke.

• Besterik ere ba duzu, CREDI-MARSANS-en abantailak. Beronen bidez zure bidaia erosoki ordain dezakezu epeka, eta gainera, nahi baduzu, bidaiaren prezioaren besteko diru kantitate bat aurrera diezazukegu, bidean dituzkezun gastuetarako.



Diners txartelaz geroago ordaintzekoak jasotzeko agente bakarrak

# MARSANS

ZURE ZERBITZURAKO ORDEZKARITZAK: Algeciras (Cádiz) / Barcelona / Bilbo / Cádiz / Córdoba / Granada / Granollers (Barcelona) / Hospitalet de Llobregat (Barcelona) / Jerez de la Frontera (Cádiz) / Las Palmas de Gran Canaria / Madrid / Murcia / Oviedo / Palma de Mallorca / Puerto de la Cruz (Tenerife) / Puerto de Santa María (Cádiz) / Reus (Tarragona) / Sabadell (Barcelona) / Donostia / Santa Cruz de Tenerife / Sevilla / Torremolinos-Montemar (Málaga) / Valencia / Zaragoza / Lisboa (Portugal) / Londres (Britainia Handia) / Paris (Frantzia) / Mexiko D.F. (Mexiko) / Monterrey N.L. (Mexico) / Buenos Aires (Argentina) / Río de Janeiro (Brasil) / São Paulo (Brasil) / New York N.Y. (U.S.A.) / Santurce-San Juan (Puerto Rico) / Caracas (Venezuela).

## UDAKO EUSKAL IKASTALDIAK ARRASATEN

NON: Teknik Ikastegian

NOIZ: Uztailaren 1etik 14era

Goizeko 9.30etatik - 13.30 arte.

Arratsaldeko 15.30etatik - 18.30 arte.

Oharra: larunbat eta igandeetan ez da ikasketarik izango.

IRAKASLEAK: J. R. Etxeberria, X. Kintana, X. Mendiguren, J. R. Agastuy.

MATRIKULA: helbide honetara eman izenak: CIM  
Idiomas - E.P.P. - Mondragón  
Epea ekainaren  
15ean bukatzen da.  
Tfno. 79 14 45

A) IKASTALDIA: EUSKARA ITZULTZEN IKASI NAHI DUTENENTZAT  
(teoriazkoa eta praktikazkoa)

Gaiak. — euskararen sakonketa: gramatikako zerbait arazo, Euskara batuaren azken lorpenak.

— itzulpen mota eta teknika desberdinak.

— eredu batzuren azterketa (Leizarraga, Axular, Orixe eta gaurkoak)

— itzulpen mailakatuak (Ariketa)

Textua: "Hizkuntz-ariaketak" liburua; derrigorrezkoa ikastaldirako.

Oharra: Euskaltzaindiaren titulua ukanik, euskara aski ongi ezagutzen dutenentzat bereziki prestatua da.

B) IKASTALDIA: EUSKAL IRAKASLE IZAN NAHI DUTENENTZAT  
(teoriazkoa eta praktikazkoa)

Gaiak: — Euskararen sakonketa: deklinabidea, aditza, atzizkiak, sintaxia, analisi morfo-sintaktikoa.

— Euskararen irakaskuntz metodologia (Euskalduntzen I, II, III eta Alfabetatzen I)  
— Euskal Literatura (Euskaltzaindiaren programakuntza)

Textua: "Hizkuntz-Ariaketak" liburua; derrigorrezkoa ikastaldirako.

Oharra: Euskaltzaindiaren D irakasle titulua lortu nahi dutenentzat eta euskara eta metodologia hobetu nahi dutenentzat bereziki prestatua da.

C) IKASTALDIA: EUSKARAZ HITZ EGITEN IKASI DUTENENTZAT

Gaiak: — "Euskalduntzen" III-koak.

— Deklinabidea eta aditzari buruzko ariketa bereziak.

— Elkar hizketa.

Textua: "Euskalduntzen" III, derrigorrezkoa ikastaldirako.

Oharra: "Euskalduntzen" I eta II ikasirik, hitz egiteko erraztasuna lortu nahi dutenentzat bereziki prestatua da.

### BERRIAK aldizkariaren berri onak

Maiatzaren 24ean, Bilboko Txoko Eder jatetxean, "Berriak" aldizkariaren proiektu presentapena egin zen. Aldizkari honek Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan zehar 112 akzionista ditu, eta kazetari profesional talde baten ardurapean aterako litzateke. Zuzendaria Eduardo Magallón Torres eta zuzendariordea Jacinto Pérez Iriarte izango dira.

Astekariak, oinharritz, objektibo eta guztiei irekia izan nahi du, Euskal Herriaz (*Euzkadiz, barkatu!*) orain arte Mardiletik ematen den informazioaren desegoki- eta laburtasuna gainditzeko.

Erdaraz (o/o 70-80) eta euskaraz (o/o 30-20) agertuko da, edozelako artikulua (itzulpenik gabe) hizkuntza bietan agertuz. Offset-ez inprimatua, hasteko, 25.000 ale aterako ditu; baina urtebetegarrenerako 75.000raino heltzeko asmoa dute.

Bilbon egin zen kazetalaurreko elkarrizketan, Luis Haranburu-Altunak, euskaraz, aldizkariaren asmo eta xedeak azaldu zizkigun. Lege baimenak lortzeko gestioak jandantik oso aurreraturik daude ministerioan, eta datorren udazkenerako astekaria kaleratzeko esperantzan daude. Ea bada!

Xabier Kintanak

### TELEFONO BERRIAK.

Telefono zenbakien aldaketa dela eta, Euskaltzaindiaren Bilboko bulegoak, datorren hilabetean hasita, hurrengo zenbaki biok izanen ditu: 415 34 78 eta 415 27 45.

Halaber, ANAITASUNAK bere telefono zenbakia aldatua du, zaharraren ordean haxe duelarik: 416 74 49.



# "ETXE SARTZEA"

## bide berriak

Baigorri lehenik eta gero Irisarrin emana izan da "Etxe Sartzea". Lerro hauk argitaratuko direneko, beste zenbait herritan ere dudarik batere gabe...

Ez naiz segur, "antzerki" edo "teatro" izena eman behar zaionik. Ez baitu gauza handirik ikustekorik, hala deitzera ohituak garen ikusgaiekin. Beste zerbait, beste gisa batez moldatua, beste molde batez idatzia, beste moduz jokatu...

"Toberak" ere ez dira. Ez, bederen, egiazko toberak; nahiz, hori ezin uka, toberetarik zerbait hartua izan den. Toberak, "eskenario", "hari" finkatu baten arauera ematen ziren, "Etxe Sartzea" urrundik baizik ez darraiona.

Baigorri. Herriaren hitsa: deusik ez egiteko; zaharren gogoetan baizik ez dirauen lehenagoko herriko bizia berriz aurkitu nahia; elkarrenganatzeko, biltzeko beharra... Zer egin? Gazte talde batek solas eta arrenkura horik darabiltza. Hortik jalgiko da "Etxe Sartzea": gazte horien biltzarreetak. Antzerki gisako zerbaiten egitea erabaki baitute. Egitea eta ez ematea; hots, haiek beraiek hastetik bururaino asmatu eta modaturik. Horretarako, teatro lanetan zerbait trebatuak diren bi laguntzaile deitu dituzte: K. Etxalus eta D. Landart. "Etxe Sartzea" talde-lan honen emaitza da.

Ilgande arratsalde batez, Baigorriko eliza ondoko plazañoa. Laupabost ehun jende, hor nonbait. Eguzkia bera ere ikusle. Gure aitzinean, ostatu dirudiela, taulada tiki bat etxe bati kontra; zertarako den ez dakigularik, ezen antzerkiaren denboran ez den erabiliko: beharbada zin-zinez teatroan ez gaudelako? Eskuinean, etxeari datxeikiola, frontoia. Ezker aldean, jarlekuak ere.

Gibeletik, gu so gauden aldetik, laborari zahar bat sartzen da. Asto batekin lanetik heldu, astoari eleka. Hasten da.

Gaia asmatua bada, ez da arras, ia egun gustiz gertatzen baitira honelakoak: laborari zahar bat etxaldearen saltzera behartua. Nori sal, ordea: Paristar Markesa aberatsari, herriko jaunek nahi luketen bezala, eta aski sos eginez horrela, gero azken egunen goxoki bezain tristeki zahar-etxe batetan iragateko? Ala, prezio apalagotan, baina etxen egoenez, etxaldeko lurren behar gorritan den laborari gazte zenbait?

Lurra, bizitzeko haren lantzearen beharra duenari zor zaio. Ideia nagusi horren inguruan josia da guztia. Luzeegi litzateke antzerkiaren kondatzea. Azkena bakarrik: alde baitetik, herriko jaunak, tratularia eta aberatsak; legea beren alde baitute noski, poliz gizon andana batek zainduak; beste aldetik, etxaldearen saltzailea, laborari xumeak eta gazteak. Hauziak, burrukaz beste garbibiderik ez du. Joka hasi aitzin, ikusleak, nor bere alderdiaren hautatzera gomitatuari dira. Horri esker, herri-jaleen aurkako herri-batasunari esker, laborariak dira garaile aterako.

"Etxe Sartzea" ezin daiteke teatro erizpideen arauera juja. Euskal teatrogintzaren akats nagusia den "erakusteko" eta "irakasteko" nahikeria hura, hemen galbide eta oztopo izan beharrean, bultzagarri gertatzen da. Pertsonaien psikologiarik ezak beste funts bat hartzen du; haik ez, baina mugimendua, "situazioak" baitira munta handien dutenak. Jokalarien ahal mugatuak baliatuak dira, eta ez, besteei gertatu ohi dena, "jasanak". Ez da harritzeko, halatan, une ahul eta flakoak teatro klasikoaren irudikoen izatea; hots, mugimendua, jokoa, pertsonaien gogoeta eta hitzetara iragaten delarik.

Daniel Landartek idatzia du antzerkia, Baigorriko gazteen bilkuretako elkar hizketen arauera. Euskal teatro-idazlearentzat, esperientzia berri bat izan da, gure ustez jarraitzea merezi duena. Ezagutzen dugu Landarten buruhaustea: garuko euskaldunentzat idatzi nahi du, Euskal Herriko eta euskal populuaren egoera latza adieraziz. Bidenabar euskal teatrogintza aurrera atera nahi luke. Ba daki ordea, urrunegi joaten bada, euskaldunak ez zaizkiola jarraituko. Ez du, bizkitartean, haiengandik bereizi nahi. Eta gisa guztiz ere, hiltzera daramaten herri hau aipatuz, nola izan daiteke lekuko edo idazle soilik? Nola ez oihuzta? Nola ez jazar eta oldar? Nola egon deika, ari izan gabe?

Hortik, usu, haren lanetan hain haztun eta pairagaitz gertatzen diren "peredikuak". Etxe Sartzeak" kontradikzio honetarik ateratzeko bide bat erakutsi du. Iholdi; Baigorri; bide hau segituz, euskal teatrogintzak adieraz molde berri eta egokiagoak aurkituko ditu.


Segur, ba da oraino lan askoren egiteko. Profesionalismorik eza, ez da —nahi eta ez— gauza ona. Ez ditzagun geure buruak engania. Polotan ez dakitenek, pilota partida txarrrak eginen dituzte. Teatroan ber gauza: antzerkilariak beren lanetan doi bat trebatuak ez izanik, antzerkirik ederrena ere zerbait hits eta aspergarri bihur eraziko dute. Ez da mirakuilurik.

Alta bada, "Etxe Sartzea" eskaini diguten Baigorriko hogeitaz gazteak ez dira antzerkilariak. Ez, hala balira, "Etxe Sartzea" ez litzateke ikusi dugun ikusgaia. Zerbait artifizia- la, ordea, gaizki idatzi eta osatua; zerbait entzungaitz.

Hamar bat euskal antzerki eman dituzte aurten ipar aldean. Antzerki "klasikoak" (Monzon, Larzabal, Landart); zenbait herritako gazteek emanak. Neke da, herri tiki batean gazte zenbaitz bost ahaletan ari izan ondoren, egin dutena, deus bainoago, urrikgarria dela erratea. Ondikoz, ez dea hala gertatzen gehienetan? Kultura ofizialetik aparte, telebistaren kontra, zinearen kontra, gizarte honek eskaintzen dituen atsegin bide guztien kontra, holako gauzek oraindik irautea hain da harrigarria, non haien gutiasteak ezinezko baitirudi. Etsaiaren jokoaren egitea litzateke. Lehen-lehenik, iraun; oroz gaintetik, bizi.

"Etxe Sartzea" k, aldiz, aitzinago garmatza: bide berriak urratzen ditu.

Ez, gure Herrian, ez da antzerkilaririk, ez da teatro lanetarako tradizioirik, eskolarik, publiko ikasirik, ez da egiazko antzokirik. Baina, "Etxe Sartzea" beste zerbait da. Tobera berriak?



## Espainol Estatuko egoera.

Benetan inkoherentea azken hilabeteotan Estatu mailan bizitzen ari garen bilakabide politikoa.

Batetik, gobernuko ministru erreformazalean deklarapenak ditugu. Deklarapen hauetan, Europaldeko herrietako demokraziarekin konparagarri den demokrazia lortzeko duten asmoaz, kanpoko eta barruko oro, konbetzitu nahirik azaltzen dira. Bitartean, ordea, Arias lehendakariak, oposizioaren aurkako erasoez beteriko hitzaldi mugigaitza egiten du. Bestetik, oposizio berau, erregearekin elkar-hizketa zuzenak edukitzen hasten da.

Gasteizeko gertaerak galerazteko bideak jarri ez ziren legez, ez dira aitortu nahi Montejurra-koaren gisako **aurrez sonaturiko ekintzak** ere. Kontutan har, gainera, hau guztiau, alderdi politiko denak, komunista ezik, legalizatuak izango direla hilabete barru, Fragak **Reagrupament Socialista i Democràtic de Catalunya**-ri esan zionetik egun guti zirelarik gertatu dela.

Madrilako Autonoman eta 50.000 gazteen asistentziaz, Iberiako Herrien Jaialdia ospatzen uzten da, "24 Orduak Euskaraz" zela eta, Anoeta-ko jaialdi izugarria laga zen legez. Bitartean, ordez, Santutxuko Kultur Hamabostaldiko Jaialdia ikusten ari ziren 8.000 pertsonen aurka erasotzen du poliziak.

Debekatu egiten dira manifestaketak, galerazi hitzaldi eta kultur saioak, ezlegaltzat jotzen dira Udaletxeetako erabakiak, handiagotuz doa politik atxilotuen zenbakia, beren betiko tortura-moduekin diraute komisaldegi eta koarteleetan,... Eta hau da. esaten dutenez, demokraziarako bidea (!).

Erreformazalekeria ofizialaren aurrean, eta aldatetaz ezertxo ere entzun nahi ez duen bunkerraren kontraldean, oposizioa aurkitzen da. Espainiako Nazional Fronte egiazkoa den Demokratik Koordinaketan biltzen da oposizioa hau. Talde honak eten negoziatua proposatzen du, hots egitarau demokratiko minimo batekin, maila guztietan eta denekin negoziatu.

Halaber, nola Galizian hala Catalunyan beren "**fronte nazionalak**" sortu direla dakusagu. Hauk izango dira, azken batean, aipatutako Espainiako fronte nazionalaren interlokutoreak.

# NORA ERAMAN NAHI GAIUZTE



## Euskal Herrian zer?.

Gure Herrian ez dugu Estatuکو beste Nazional Fronteekin harremanetan lebilkeen Euskal Nazional Fronterik.

Hor **datza** "Gobierno de Euskadi" deitzen dena, non **ez dira dauden guztiak**, eta ez daude **dirren guztiak**. Halaber ba dago "Asamblea Democrática de Euskadi", Gernikan sortua joan den Urtarrilaren lauean, non **ez dira dauden etarik inor**. Ba dira ere alderdi desberdinak eta abertzale eskertiar taldeak, "Asamblea"n sartu ez direnak eta "Gobernuak" aitortzen ez dituenak.

Nolako geroa espero dugu? Agian ezer itxaron al dezakegu espainol kristau-demokratengandik Gil-Robles-ek Estatu federal bat bera ere onhartzen ez duenean? Ala euskaldunok nazi garaia esaten duten Felipe-ren jarraitzaileengandik? Ala Nafarroa Euskal Herrikotzat hartzen ez duten Carrillo-ren jokabideengandik?.

"Gobernu" barrutik bultzatutako Euskal Kontseilu Nazionalari buruz berba egiten da. Norzuk osatuko dukete berau? Egingo al zaie lekurik euskal ezkeraren indarrei? Ala espainol alderdien **ordezkaritzaz errepresentatuak** izango dira berriro?.

Euskal politika bat non dago? Euskal Herrian ez al dago politikaririk, espainolez aparte?.

Erna garaian gaude, ez badugu berandu heldu nahi berriro ere.

M. BADIOLA.



# bi sozialismo guttienez

Eredurik?

Guti dela, Olof Palme (sozialista izateagatik baino ihaz Madrileko Gobernuraren kontrako kanpainagatik, gure artean ezagunagoa dena) Sobietar Batasunean izan da ofizialki ikustaldi bat egitera joana. Jugoslaviako Tito ere Stokolmora joan berri da. Eta udazkenean joatekoa Kubako Fidel Castro.

Joan-etorri hauk direla eta, batek baino gehiagok berri ere Suedia jarri du eredutzat. Suediak duen erakarmena ezaguna da. Hango neskak bakarrik ez baino hango sozialismoa ere asko famatzen da. Kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko sintesia da hangoa batzuzentzat: alde batetik industriaren o/o 5 bakarrik sozializatu eta bestetik berdintasun edo igualitarismo gehieneko herria.

Ez Suediakoa ez Sobietar Batasuneko berri baten bila dabilta beste batzu. Mitterrandek zuzentzen eta gidatzen duen sozialismo moetak du, azken partean, arrakastarik handiena. Mitterranden joerakoak dira De Martino, Mario Soares, Felipe Gonzalez, eta beste.

Joera honetako sozialismoa, agian berrikuntza handiagoen bezperatan dago. Mitterrandek berak esan duenez, Frantziaren bertan ezkerreko gobernura iristea ez da aurrerantzean gerta litekeen zerbait, guti barru gerta daitekeen zerbait baizik. Frantzia bezalako herri aurreratu batetan ezkerre (sozialistak eta komunistak, alegia) aginteaz jabetuko balitz, inguruko zenbait situazio itzulipurdikatu egingo lirateke. Ez da Europaren goikaldean gertatzen den sozialismoarekin konparatzekoa kasu hau, nahiz eta haik ere herri aurreratuak izan. Ba da eta alderik franko bi sozialismo hauen artean.

Hegoa eta Iparra.

Sozialismoaren azterketan jadanik klasiko bilakatu da bi sozialismo moeta hauen bereizketa. Batzuk sozialdemokrazia eta sozialismoa bereizten dute, beste batzuk nahiago dute, gauza bera esateko, Iparreko sozialismoa eta Hegoko edo Mediterranioko sozialismoa bezala bereizketa izendatu. Sozialismoaren aldetik begiratuta ere, bitan zatikatzen da Europa. Eta bi sozialismo bide hauen diferentziak aski ugari dira. Batzu aipatzeari ekingo gaitzaizkio orain, bakoitza hobeto definitzeko asmoarekin.

Europako Alderdi sozialistak Danimarkan bildu zirelarik ere, desberdintasun hauk ez ziren fitsik ere ezabatu. Ba-

koitza bere jokabidean finkatuagorik atera zela pentsatu ere pentsa dezakegu. Han bildu ziren 17 alderdi haietan, bi linea nagusitzen ziren argi eta garbi.

Alde batetik, Ipar aldekoak. Hauen artean, britainiar laborismoa, Eskandinaviako alderdiak, eta germaniarr. Kasu hauetan denetan, sozialistak agintean daude. Eta agintera iritsi ere, komunisten laguntzarik gabe ailegatu dira. Alderdi komunistak, gainera, minoritarioa da.

Beste aldetik, Hego Aldekoak daude, Frantzia, Italia, Portugal, Espainia, eta abar. Mediterraniarrak ere deitzen zaie hauei. Alderdi komunistak dela eta ez dela, alderdi sozialista hauk, ia beti, gobernutik kanpo aurkitzen dira, agintetik bazterturik.

Kapitalismoaren aurkako burrukan bat etorri arren, ez burruka egiteko orduan eta ez agintera iristerakoan jokabide bat bera har dezakete goiko eta beheko alderdi sozialista hauak. Ipar aldekoak eskuina zaindu beharrez aurkitzen dira. Hegoak, ostera, ezkerre. Hauentzako agintea hartzeko posibilitate bakarra, Ezkerrean Batasunaren barruan da. Eta hortiz doaz. Jadanik 1972an Mitterrandek esan zuenez, "komunisten parean jartzeko bide bakarra, eta haik gainditzekoa, beñaiekin bateratzea da". Alderdi komunistak oso minoritario diren herrietan ez dago holako arazorik. Eta hauxe da hain zuzen ere Ipar aldeko alderdien kasua.

Kapitalismoarekin hausteko estrategia ere oso desberdina da biena. Emeki emeki erreformak eginaz jo nahi lukete aurrera Ipar aldekoek. Adabakitan ibiltzea litzateke hori, mediterraniarrentzat. Erabaki gogorragoak hartu behar dira kapitalismoaren aurka, zir edo zart egin behar da deus funtsezkorik lortu ahal izateko, diote hauk.

Hego aldean, autogestioaren bidetik.

Ipar aldea, hitz batez esateko, sozial-demokrazia zalea da. Sozialismo beratua da hori Hego aldekoentzat. Hauen "image de marque" sozialismo autogestiozalea da. Joera hau geroz eta nabarmenagoa da.

Europa beheko sozialismoak, urte honen hasieran, Mitterranden gidaritzapean Parisen egin zuen bileran ere garbi ikusi zen, puntu sendoenetariko bat sozialismo autonatiaba gisa aurkezten dute. Sozialdemokraziaren aurrean alternatiba. Eta berdin, marxisten aurrean alternatiba. Irudi honekin agertu nahi dute jokura.

Autogestioa beretzat hartuz, alderdi sozialistek uste dute ba direla gauza sozialdemokraziaren tentazioari eusteko, horretarako kapitalismoaren kontrako burruka hauspotuz. Aldatuz eta desestalinizatuz doan alderdi komunistari ere erresistitzeko gauza ba direla autogestioarekin uste dute alderdi sozialistek. Alderdi komunistengandik bereizteko, demokrazia pluralistaren beharra azpimarratzen dute sozialistek.

Situazio eta historia desberdinei egokitzen dakielako sozialismo bat baino gehiago dago. Ez dago monolitismoarik, ez dago dogmatismo itxirik. Sozialismoaren alde doa hori. Era bateko ebakiduraz eta zismaz norbait mintzatu arren, bi sozialismo moeta hauk harremanetan tinko diraute. Etendura beste nonbaitetik sort dadin nahi ez bada, herri handietako sozialista hauk herri tikitako arazoak eta arreta handiagorekin begiratu beharko litzukete. Eta, beraz hauetako alderdi sozialistekin harremanetan jarri. Zeren eta, hemen ere, ba liteke sozialismo moeta berriren bat bilatzea. Bi sozialismo beraz? Hiru ere bai.

Joan Mari Torrealday.

# EUSKAL UDALEKUEI buruz

# eikar ikuskika

JEXUS M. ARRIETArekin



Uda gainean dugularik, Euskal Herrian garrantzi handia duen fenomeno honetaz zertxobait jakin nahian jo dugu, Jesus Marirangana. Berau, idazle eta hizlari trebea ez ezik, "EUSKAL UDALEKUAK" deiturikoen zuzendaritzakoa ere bada.

Guztiok zerbait ikasiko dugulakoan, eta hain arrakasta handiko erakunde batek gure laguntza osoa behar duelakoan ematen ditugu argitara iritziok.



Beire-ko udalekuaren etxea

1.-NOIZ ETA ZEIN ASMOTARA KO SORTU ZEN "EUSKAL UDALEKUAK"?

2.-ZEIN EPE NAGUSI IRAGAN DU?

3. GAUR NOLA DAUDE ERATUAK LAU ETXEOK?


4.- ZENBAT HAUR DUZUE AURTEN? JOAN NAHI DUTEN GUZTIAK HARTZEA IZAN AL DUZUE? ZENBAT ORDAINTZEN DUTE?

5.-ZEIN DUZUE FINANTZIA-BIDEA? DIRU PROBLEMARIK IZATEN AL DUZUE?

6.-NOLA PRESTATZEN DIRA BEGIRALEAK ETA NONDIK ATERA HAINBAT BEGIRALE?

7.-ZEIN ASMO DUZUE, "EUSKAL UDALEKUAK" HARTZEN ARI DEN INDARRA IKUSIRIK?





Euskal Udalekuak, nik daki-danez, lehen aldiz Arabako Barrian egin ziren. Orduan ikastola gutti zen eta haur ttikiak zebiltzan. Ikastaroan ikasten zuten euskara maiz galdu egiten zuten, hein batetan, uda sasoiari. Hau nolabait zuzendu nahirik sortu zen lehen Euskal Udalekua. Haur horiek erdal eskoletan sartu be-

harra zuten, ordea. Eta, horrela, galera handiagoa zen. Horregatik, garai hartan ikastola urteetatik iraganak ziren haurrak, udan berderen, euskal giro batetan hartu nahi izan zen. Horretarako Araban bertan, Ozaetan, antolatu zen dorretxe koskor batetan beste Udaleku bat. 1967. urtea zen. oker ez banago.

Lehen eta oraingo helburua, beraz, gure haurren euskal izatea eta nortasuna lantzea eta sendatzea dute Euskal Udalekuek. Horretara eta haurraren gizo izatea ere lantzeraz zuzentzen ditugu Udalekuko ekintzak oro: jolasak, jokuak, zinema saioak, ipuinak, antzerkiak, eta abar.

Hurrengo urrats nagusia hauxe izan zen: ikastolakoek ez eze, erdal eskoletan zebiltzan haur euskaldunek halako zerbaiten behar are handiagoa zutela ikusirik, Saturrarango Seminarioan Euskal Udalekua antolatzea Saturraranen eta Debako etxe batetan eman zitzaion bigarren

aldi honi hasera. 130 haur izan zen urte hartan, bi txandatan. Hasera aski latza, ez baikenuen deus ere eta ezagunak ere ez baikenen.

tik, Udalekuen antolatzeaz. 1970. urtean Nafarroara jo genuen, klaretiarrek eskaini ziguten etxe batetara. Honelaxe sortu zen Beireko Udalekua. Ondoren, Saturrarant utzirik, Abagarren eta Antzinen ireki ditugu Udalekuak eta, azkenik, aurten Arabako Berrialdon.

Urte hartan begiraleek haurtaturik. Pedagogi Batzorde bat sortu zen. Hau axolatu da, geroz-

Batzorde Eratzaile batek, begirale eta sukaldarien laguntzaz eratzen ditu. Betidanik, haurrak taldeka banatu izan ditugu. Hamar laguneko taldeak, batik bat. Talde bakoitzak begirale bat izan

ohi du, laguntzaile eta zaindaria. Lau etxe horietan, txandaka taitaturik, E.G.B. ko maila orotan dabiltzan neska-mutikoentzat antolatzen dira Euskal Udalekuak.

Talde bakoitzak bere nortasuna du, baina begirale orok dakite besteen berri, zenbait joku eta ekintzatan batera joanki.

Aurten, batekoz beste, 1.400en bat haur ditugu izan eman eta onhartuak. Zoritxarrez, beste asko eta asko gelditu da tokirik gabe eta, geure gogoaren kontra, ezetz esan behar izan diegu.

Aurten 2.200 pezeta eskatu zaio haur bakoitzari. Horrek aurtengo martxan gastu osoak bete-ko ez dituenek, ahal duten gurasoei gehixeago emateko eskatu diegu. Askok ongi erantzuten du.

Udalekuan lan egiten duten guztien laguntza. Aurrera jarraitzekotan, finantzia bide berriak urratu beharko ditugu.

Berez finantzia bide bakarra haurrek ordaintzen dutena beste-rik ez dugu. Ez digu erakunde ofizial batek ere laguntzen. Baina adiskide eskuzabal zenbait aurki-

tzen dugu Euskal Herrian barrena: jeneroa erdi prezioan eman ohi diguna, bai eta hutsean eman ohi diguna; diruz laguntzen diguna eta, batez ere, deus jaso gabe

Begirale gehienak ikasleak dira, beren oporrei egun batzuk kendurik, Udalekuan 20 egun haurren zerbitzuan eman ohi dituztenak. Bada zenbait langile ere eta profesio liberaletako batere bat.

Urte barruan zenbait bilkura eta, batzuetan, ikastaldiak eginez presta ohi dira begiraleak. Bai eta txanda bakoitzeko begi-

rak elkarrekin bilduz eta zenbait gai elkarrekin ladar: jokuak, eskulanak, psikologi gaiak, pedagogia, kantak, kultur gaiak...

tzen gaitu ditugun etxeak hobeki atontzera eta gure Udalekuen zabalderak zenbaterainoko behar duen etengabe aztertzeraz. Herriak eska dezan artean, zerbitzu koskor hau eskaini nahi genioke.

Bai, zinez indarra hartzen ari dira Euskal Udalekuak. Guk aste genuena baino gehiago. Haur gipuzkoarrekin hasi ginen. Gaur esan daiteke Euskal Herri osotik datozkigula: Gipuzkoatik, Bizkaitik, Arabatik, Nafarroatik, Lapurditik.

Agian, pixkanaka eskualde edo eta herri bakoitzean udaleku bereziak antolatzeari ekingo zaizkio, hotsa denez. Horregatik zail da gure lan honek nolako iraupena dukeen neurtzea. Hala ere, luzea erizten diogu. Horrek bultzatzen

Antton I.



# KALEKO




## inconfundible

Inconfundible por su adherencia, su duración legendaria y su seguridad. Inconfundible, sobre todo, por su calidad, derivada de una tecnología de vanguardia. Vd. no puede confundirse con las Imitaciones



## GURUTZEGRAMA



**Luzetara:** 1: Kontsonantea.- 2: Merkaturia (alderantziz).- 3: Bokala. Ihardun (alderantziz). Bokala.- 4: Jokorako bola biribila (alderantziz eta pluralean.- 5: Etxeko aretoa. Zoro (artikuluarekin).- 6: Lusagarra, lurpeko erro jangarria (pluralean).- 7: Bokala. Maiz, sarri. Bokala.- 8: Nahikoa.- 9: Bokala.- 10: Kontsonantea.- 11: Ganbio.

**Goitik behera:** 1: Kontsonantea.- 2: Epeak jarriz (alderantziz).- 3: Bokala. Edo. Kontsonantea. Kontsonantea.- 4: Kontuak garbitu (artikuluarekin). Kontsonantea.- 5: Ereiteko lurra. Gogoan sortu.- 6: Zale egin (artikuluarekin). Kontsonantea.- 7: Bokala. Basoko landare lore gabea. Kontsonantea. Bokala.- 8: Haro, aldi.- 9: Bokala.

**Epoka.- 9: A.**  
**R.- 5: Soro. Asmatu.- 6: Zalatua. K.- 7: A. Ira. R. E.- 8: Kitatua.**  
**Goitik behera:** 1: G.- 2: akepe.- 3: A. Ala. S. T.- 4: Kitatua.  
**Luzetara:** 1: S.- 2: akoza.- 3: A. ita. E.- 4: katolip.- 5: Ge.  
**la. Eroa.- 6: Patatak.- 7: E. Usu. A.- 8: Samar.- 9: A.- 10: T.- 11: Truke.**

URREZKO



ASTABELARRIAK



Bilboko La Gaceta del Norten zer nolako euskal eritziak dauzkaten ez da erraz, halafedea, asma-tzea. Sasoi batetan ERRI KIROLAK idazten aritu ondoren, Bengoa Zubizarreta adiskideak, euskararen batasuna delako zerbait ba zegoela nonbait aditurik edo, HERRI KIROLAK ezarri zuen. Orain dela guti, aldiz, ez dakigu zergatik, susmatu arren ere, dzapa! goain azaltzen den moduko perla jarri digu, euskaraz r pikordunaren erreinua jadanik pasatua zela eta orain r bikoitzaren errepublikaldian bizi ginela uste genuenoi, antza, bestela pentsarazteko.

Dena den, adiskide Jose Luis, oraingoa behintzat ez dik inork ukatuko gure astabelarrieta-rako duan merezimendua. Tori.

**Herriarekin. Herriarentzat.**



**Caja Laboral.**



**CAJA LABORAL POPULAR  
LĀN KĪDE ĀVRREZKĪT**

# Jadanik

**105 bulego ditugu prest zuretzat  
eta, gainera, 50 zerbitzu ezberdin  
baino gehiago; guztiok zuri  
eskaintzeko.**

**Baina, hala ere, gehiago jaso nahi ditugu  
Eta lortuko ditugu.**



**CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA**

*Hemen irabazi guztiak zuretzat dira*